

DATORRENA

Izena (ez) duen biktimaren argia
itzali ez dadin **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

HIZKUNTZA BIZIBERRITZEA:

Yuchi hizkuntza indigenak
badauka ahotsa berriz ere **> 4**

2024ko maiatzaren 11 | XVIII. urtea • 875. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ASTRAKO BABESLEKUA GERNIKAN, MEMORIAREN ATERPE

ASTRA KULTUR ESPAZIOA ETA ONDOKO BUNKERRA. GERNIKA ZAHARRETIK GERATZEN
DIREN ELEMENTU BAKANETAKOAK DIRA, MEMORIAREN ATERPE ETA TRANSMISIOAREN

KATEBEGI, LOBAK EKIMENARI ESKER. **> 12** Aritz LOIOLA | FOKU



4



8



18



AEBetako Yuchi hizkuntza indigenak ahotsa berreskuratu du murgiltze-eskola bati esker 04

Manahel al Otaibiren kasuak giza eskubideak auzitan jarri ditu berriz ere Saudi Arabian 08

Astra eta bunker zaharra, Gernikako memoriaren aterpe 12

Nerabeak interneten: nola lagundu beraien jarduna ezkututzen badute? 18

Elkarrizketa: Mireia Sierra eta Saioa Baleztena, «Todas las lactancias» liburuaren egileak 22

In Fraganti: Miren Larrarte 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



22



27

SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Izena (ez) duen biktimaren argia itzali ez dadin
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Lotura emozionalak
- 11 **Iñaki Altuna:** Alderdien interesagatik gotortzen ari da EAJ
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 17 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Parasito hutsa
- 17 **Miren Azkarate Badiola:** Eraldaketarako zirrikituak
- 20 **Ana Novoa Fariñas:** Hilekoa: biologia eta politikaren artean
- 21 **Xabier Izaga:** Ezohiko zurrunbiloen ondoko paisaia ohikoak
- 30 **Maite Oronoz:** Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria detektatzen, adimen artifiziala baliatuz



{ datorrena } **Maite UBIRIA BEAUMONT**

Izena (ez) duen biktimaren argia itzali ez dadin

Maiatzaren 3an Donibane Lohizuneko hotel batean bortizkeria sexistaren muturreko adierazlea den hilketa gertatu zen. 33 adineko emazteak mailu batekin eginiko zauri larria zuen buruan. Bere gorputzak beste urradura anitz bazituen, bere azkeneko orduetan bizi izan zuen infernua aditzera ematen zutelarik. Bihotza uzkuertzeko moduko deskribapena eskaini zigun kazetarioi bere bikotekideari nahitara eginiko hilketa egotzi dion prokuradoreak. Izan ere, detaile horiek guztiak eskuratu ondoren, oinazea sabelean, honako galdera pausatuta nion nire buruari? Film beltz batekin parekatu ahal zen Jerome Bourrier jaunak eskaini zigun bertsoak zertan lagundu zezakeen bere izena ere eskaini ez zigun emazteari gertatu zitzaiona herritarrei azaltzeko orduan?

Izena duen guztia existitzen bada, nola azaldu, nola ulertu, nola irentsi, bada, emazte hilaren nortasuna desagerraraztea?

Ez da lehen aldia komisionari, auzitegian edo erietxean hain oinarritzkoa den informazioa eskatzea egokitu zaidala. Ezezko borobilak jaso ditut bueltan, batzuetan «pribatutasun eskubidea», besteetan «biktimaren familiari zor zaion errespetua» aldarrikatuta. Behin baino gehiagotan telefonoaren bestaldetik hauxe galdetu dit solaskideak: «Zertarako balio dizu biktimaren izena emateak?». Urteak joan urtean etorri, ezkutatze prozesu horren defendatzaile sutsuak izan ditut aurrez aurre. Norabide onean begiratzeko nahikeriari erantzun ordez, lainoz beteriko betaurrekoak eskaintzen zizkiguten zerbitzari publikoak ziren gehienetan.

Bide batez esanda, biktimari azkeneko babesa emateko ustezko borondate zintzoak jokabide eztabaidagarriak estaltzen zituen askotan. Biktimaren duinta-

suna bigarren planoan jarrita, bere ibilbideari buruzko beharrezko ez genituen hamaika xehetasun eta eskatzen ez genituen beste hainbeste balorazio moral jaso ditugulako urtetan kazetariok.

Lehen lerrotik hasita bikotekideak eragindako bortizkeriarengatik hil den emaztearen argia itzaltzeko arriskuari aurre egitea da, ordea, nire ustez, gure lana. Gizartearen sustrai guztiak odolizatzen dituen matxismoari zilegitasuna kentzeari begira, denon ekarpena, gurea ere bai, ezinbestekoa dela sinesten dugulako.

Zergatik izena eman? Arrazoi anitz badira ere, batean laburbildu daitezke: erasotzaileak emazteari bizitza lapurtu ondoren, biktimari zor zaion gizatasuna itzultzea premiazkoa zaigulako.

«Zergatik galdetzen dugu izena? Arrazoi anitz badira ere, batean laburbildu daitezke: erasotzaileak emazteari bizitza hustu ondoren, biktimari zor zaion gizatasuna aitortzea premiazkoa zaigulako»

Isilean ekin zioten Louis XIV plazan bildutakoek samina eta haserre eragin dituen hilketa matxista salatzeari. Izena (ez) zuen emaztearen aldeko txaloen berotasunak hautsi zuen soilik eusteko jarrera.

Ondoren, ordea, hitzak bete zuen plaza. Ardurak hartzeko agindu zitzairen mugimendu feministaren izenean zaugarri zen emaztea babesgabe utzi zuten guztiei: poliziak, fiskalak edo epaileak izan. Hala ere, bortizkeria matxistaren auzia porrot egin duen frantses justizia-markoaren barnean gorde nahi duten agintariak eta erakundeak zailago dute etorkizunean. Emazte guztien izenek kontatzen dutelako, itzaletik argitara igarotzeko agindua heldu baita plazatik. •

HIZKUNTZA BIZIBERRITZEA

Yuchi hizkuntza indigenak badauka ahotsa berriz ere, haurrek emana

Oklahoman, Tulsa hiritik askorik urrundu gabe, hainbat herri indigenaren erreserbak daude. Hiria bera natiboen lurralde gisa dago onartuta. XIX. mendean AEBetako hedapenean egindako politiken ondorio da txerokiek, creek edo muscogee-ek leku honetan amaitzea: kolonoiei –eta zuriek esklabotzan hartutako pertsonen– leku egiteko eta lursailak emateko, bertan bizi zirenak Mississippi ibaitik mendebaldera bidali zituzten 1830eko hamarkadan.

Milaka hil ziren bidean, baina bizirik irten zirenen ondorengoak Oklahoman bizi dira gaur egun. Aitortza federala daukate, hau da, Washingto-

HIZKUNTZA / Urtzi URRUTIKOETXEA

Historia gogorra daukan herri indigena da yuchi nazioa. Gutxi dira, ez daukate erreserba edo aitortza federalik Ameriketako Estatu Batuetan, eta, XX. mendean hizkuntza galtzen joan bada ere, argi daukate ez dutela hiltzen utziko. Horretarako, Yuchi hizkuntzako murgiltze-eskola bat ireki dute.

nek herri subirano gisa aitortzen ditu eta beren burua gobernatzen dute.

Herri guztiek, batek izan ezik: Yuchi herri txikiak, gainerako hizkuntzetatik desberdina izanda ere –hizkuntza isolatutzat hartu ohi da, beste ezeinekin harremanik gabenez dauka errekonozimendu federalik. Hala, creek herria-

ren erreserban gabiltzala, Sapulpa herriko txoko batean eraikin eder bat ageri da, zelai zabal bat ondoan duela. Bisoiteak daude bertan bazkan. Iaz ekarri zituztela jakinaraziko digute geroxeago, Yuchi herriaren kulturako elementu garrantzitsua direlako. Auto bat iritsi, eta ume bat jaitsi da eskolara bidean.

INGELESIK EZ

Ikastetxeko sarreran atentzioa ematen du «gaKALA hE-LA-Â!» dioen seinaleak. Gero, parentesi artean, ingelesez irakur daiteke itzulpena: «Ingelesa hemen geratzen da». Eskola barruan ingelesik ez, alegia. Yuchi-en (Euchee ere idazten da) hizkuntza biziberritzeko gunerik garrantzitsuenera iritsi gara. Ingelesik gabeko txoko bat Ameriketako Estatu Batuetan.

Richard Grounds izan zen yuchiera biziberritzeari ekin ziona duela hiru hamarkada. «1990eko hamarkadan, nire haurrak institutuan nituela, behin baino gehiagotan atera nituen eskolatik, ez hiruhileko guztietan, baina bai sarritan, gure zaharrekin hitz egin zezaten». AEBetako beste nazio indigena askotan legez, XX. mendearen hasieratik erdialdera bidean galdu zen hizkuntzaren transmisioa. «II. Mundu Gerrakoa izan zen hizkuntza komunitate gisa bizi izan zuen azken belaunaldia. Hiztunik gabe geratzen ari ginen duela hiru hamarkada. Azken hiztun haiekin lan egin genuen, nire haurrek haiekin zuzenean ikas zezaten». Halay Turning Heart-ek, Richard Groundsen alabak, kontatu duenez, hiztun zahar haiek «gure lagun onenak bihurtu ziren». Bere lehen hizkuntza ingelesa izan arren, yuchieraz ahalik eta gehien egiten saiatzen zen, «probatu egiten nuen, esandakoa zuzen ote zegoen galdetzen nien. Eta ez bazidaten ulertzen, banekien ez zela zuzena». Argi izan zuen seme-alabak zituenean yuchieraz egingo ziela. «Nerabea zen erabakia hartu zuenean» dio Richardek, Halayren aitak, «eta sekula ere ez du haurrekin beste hizkuntzaren batean

Behoko irudian, yuchi hizkuntza bultzatzeko sortutako eskolaren irudia. Gaur egun 20 ikaslelik gora dauzka.
Urtzi URRUTIKOETXEA



egin. Zazpi, bost eta hiru urteko haurrak ditu, eta neuk ere ez dut sekula haiekin ingelesez egiten».

Eskolan sartzean, dozena bat haur dabilta olgetan (22 ikasle daude guztira), zabuan gora eta behera, gosaltzera deitu dituzten arte. Gero, ekialdera begira eguzkiari eta egunari esker ona emateko kantua errepikatu dute, adinaren arabera banatu dituzten arte ikasleak, nork bere ariketak egiteko. Barre, algara, negar, elkarrekin jolastu... yuchieraz dihardute umeez, munduko gauzarik normalena balitz bezala duela ia mende bat transmititzen ez zen hizkuntzan bizitzea.

Leku eder eta zabala daukate ikastetxea bera daukan etxe dotorearen kanpoaldean, beren kulturako kirol, ohitura eta jolasak praktikatzeko ere. Ez da beti horrela izan, ordea, eta nabari zaie egindako urratsengatik daukaten harrotasuna. Bere seme-alabekin hizkuntza salbatzeko lanean hasi eta mende laurdenera, ikasle talde bat eta ikastetxe propioa irekitzea lortu dute Richard Groundsek eta Yuchi herriak. «Lehen espazio txiki bat geneukan, eta nolabait murgiltze eredu mugatua zen, asteburuetan, udan, eskolaz kanpo, dagoeneko ingelesez zekitenean etortzen ziren». Hau da, «ingelesezko murgiltzea» izaten zuten «haurrak adin batera iritsi eta eskola publikora joatean, doktrinatzeko programa bat da perspektiba kolonialetik». Hala, New Mexicoko keres hizkuntzako Montessori murgiltze-eskolaren ereduaz egaritu eta Washington estatuko Spokaneko salish hizkuntzako eskolarekin harremanetan, urratsa egin zuten. «Benetako murgiltzea



duela 4-5 urte hasi zen. Orain, ehun urte baino gehiagoan lehen aldiz, baditugu yuchi hizkuntzan hazten ari diren haurrak, lehen hizkuntzan legez, yuchieraz ikasi, jolastu, harremanak egin...». Aurreko eskoletatik igaro zirenek hizkuntzarekiko daukaten konpromisoa azpimarratu du

«Benetako murgiltzea duela 4-5 urte hasi zen. Orain, ehun urte baino gehiagoan lehen aldiz, baditugu yuchi hizkuntzan hazten ari diren haurrak, yuchieraz ikasi, jolastu...»

«Badakigu bide luzea dugula aurretik, baina aurrerapauso handia egin dugu. Espero dugu yuchieraz murgiltzea gutxienez zortzigarren mailara arte»

«Ingelesa hemen geratzen da» dioen txartela, eskolako sarreran.
Urtzi URRUTIKOETXEA

Groundsek, «badakigu bide luzea dugula aurretik, baina aurrerapauso handia egin dugu. Espero dugu yuchieraz murgiltzea gutxienez zortzigarren mailara arte».

HIZTUN BERRIAK

Saga Chivas smith da umetan yuchiera pixka bat ikasi zuteneko bat. Egun, irakasle dihardu. «Udako oporretan senide batzuei entzuten nien, baina hitz batzuk baino ez nekizkien. 19 urte nituela, Richard Groundsek esan zidan bazegoela dirutxo bat jendeak denbora bat hizkuntza ikasten eman zezan. Ez nekien irakasle izango nintzela, ohartu nintzen zaharrak hiltzen ari zirela, banekien ez genuela irakasle askorik, eta beharrez-

ko genituen hizkuntza transmititzeko. Beraz, esan nuen, 'tira, hemen nago ni ikasten', eta nekien hura transmititzen hasi nintzen, perfektua izan gabe ere».

Orain, irakaslea eta gurasoa da Saga: «Nire haurrei yuchieraz baino ez diet egiten. Baina hala ere ingeles asko egiten dute, azken batean alde guztietan dago, eta eragin hori mugatzen saiatzen gara. Ez dago askorik yuchieraz telebistan; horregatik, berdindu beste hizkuntza batzuetan badago, ingelesez ez den birtartean».

Saga iraultza txiki horren partaide da: «Haurren adina nuenean, udan bakarrik joaten nintzen hizkuntza-eskole-tara, eta hango inork ez genuen ikasi solasaldi bat izateko lain. Orain haur hauek guztiek egiten dute yuchieraz, beren adineko gaiekin, noski, baina nagusitu ahala, helduek bezala egingo dute». Badaki elebitasuna ezinbestekoa dela, ingelesaren indarrarekin bi hizkuntzak jakingo dituztela. «Baina Yuchi komunitatean yuchieraz egingo dute, eta ez dugu halakorik izan ehun urtean».

Dezbah sAwAthlanA Evans ez zen Oklahoman jaio, eta Yuchi jatorriaz gain Navajo sustriak ere baditu. Hizkuntza "berrikasi" eta irakaskuntzari heldu dio, aurretik diseinuari ekin zion pasio berberarekin: «Ingeles hizkuntzak eta mendealdeko kulturak inguratuta bizi dira. Hau hizkuntzarentzat sortu dugun babesleku berezia da». Ziur dago Yuchi guztientzat akuilu izango dela ekimena: «Ume hauek bere aitona-amonon edo birraitona- birramonen hizkuntzan jarraitzeak komunitate guztia biziberrituko du».



HIZKUNTZA ISOLATUA

Mintzaira indigena izateaz gain, linguistikoki isolatua ere bada, beste inorekin ahaidetasunik gabea. Are bereziago bihurtzen du horrek mintzaira, eta are larriagoa litzateke hura galtzea. Richard Groundsek biziberritzeko lanei ekin zienean, hogeiren bat adinekok zekiten hizkuntza, baina banan-banan hil ziren. «Gobernuaren barnetegi-eskoletatik (hamarkada luzez indigenak asimilatzeako sistema lazgarria izan ziren barnetegiak) igaro zen hiztunetako batek esan ohi zuen (yuchieraz dio lehendabizi), «sortzailak hizkuntza yuchioi bakarrik eman zigun, opari berezia da, eta erantzukizun berezia. Indartsu egiten gaitu, eta belaunaldi berriei eramatera behartzen gaitu». Baina galtzeko zorian egon da, eta hala dago oraindik.

Jatorrizko hiztunak joan zaizkie azken hamarkadatan. Josephine Wildcat Bigler-ek Yuchi Programarekin elkarlanean eman zituen bizitzako azken 20 urteak, amonarekin ikasitako hizkuntzan istorioak eta bizibideak transmititzen.

2016an hil zen. Handik sei urtera, pandemia betean, haren ahizpa Maxine zendu zen. Baina helburua beteta joan ziren: ez ziren yuchieraren azken hiztunak izan; azken hatsa ematerako, ikusi zuten yuchieraz ziharduen umeen belaunaldia. «Tamalez, azken hiztunek baino ez zituzten ikusi haurrak yuchieraz, eta haiekin aritu ziren eta jolastu zuten, oso hunkigarria izan zen. Haien bizitza guztian hizkuntzaren galera bizi ostean, azkenean haurrak hizkuntzan egiten, jolasten, dibertitzen ikusi zituzten, benetan hunkigarria izan zen».

Dezbah-k badu hizkuntza dakien seniderik, «aitona ia ingelesik ez zekien bere amonak hazi zuen, yuchiera izan zuen inguruan haurtzaroan. Yuchiera lehen hizkuntza zutenen osteko belaunaldikoa da; elebidun hazi ziren, ohiko eskolara joan ziren, baina etxean amonak yuchieraz egiten zien. Agian bera da belaunaldi horretako hiztun elebidunetan yuchieraz ondo dakien azkena». Hala eta guztiz, ez zien ondorengoei pasatu hizkuntza: «Ni ez nintzen

hemen bizi, gero hasi nintzen hurbiltzen, Halay Turning Hearti galdetzen nion, eta aitona ere bai. Materialak sortzen hasi ginen haurren inguruan egonez. Hasieran ez nuen irakasle izateko asmorik, hizkuntza ikasi nahi nuen gure nortasunaren berri izateko, gure sinbolo eta jantzien esangura ulertzeko. Baina hasitakoan, ezagutzaren kutxa handi bat ireki nuen».

«Luzaroan yuchieraz egin gabe egon ostean, aitona berri ere hasi da lotzen, eta esaten du sekula ez zuela pentsatuko horrelakorik ikusterik. Harro dago nitaz, oraindik ere nirekin ingelesez egin arren, baina nire umea ikustean, beti egiten dio yuchieraz. Bisitatzaren dugun bakoitzean, beti ikasten dut».

Jabetzen da hurrek helduek baino bizkorrago ikasten dutela, eskolan gurasoek ere konpromisoa hartu arren hizkuntza ikasi eta erabiltzeko. «Nireak hiru urte ditu, eta beti ezin diot den-dena yuchieraz azaldu. Baina inoiz ingelesezko hitzik erabiliz gero, azaltzen diot zergatik den hori, eta yuchieraz jarraitu behar dugula».

MALKOEN BIDEA

Ezinbesteko galdera dator horrelakoetan: nola gertatu zen galera, nola jazo zen hain hizkuntza bitxia galduz joatea? «Denek zuten lotsa, eskolan oso gogor zigortu zituzten hizkuntzan egiteagatik, bizi osoan ezkututzen ibili ziren. Gazte ginela, yuchieraz ikasten hasi eta kaletik 'kaixo, ze ondo zabiltzan' edo antzeko



Naturaz inguratutako eraikin eder batean dago Yuchi eskola. Urtzi URRUTIKOETXEA

zerbait esaten bagenien, sekulako trauma zeukatela ikusten genuen, ingelesez egiten ziguten», dio Richardsek.

AEBetako –eta mundu oso– leku askotan dagoen trauma bera da, *boarding school* hizkuntza, kultura edo ilea ere moztzen zieten edo barnetegien memoria tarteko. «Ezin zuten publikoki yuchieraz egin. Eta, beraz, espazio bat eratu behar izan genuen, Yuchi Etxea, bertan lasai biltzeko eta lasai erabiltzeko hizkuntza. Baina berariaz eraikitako gune berezi horretatik kanpo, oso zaila zen hizkuntza entzutea». Haurtzaroko zigorren ostean, jatorrizko azken hiztun haiek «oso kolonizatuta» zeuden. «Oso prozesu zaila izan zen batzuentzat ulertzea lehen hizkuntza gisa ez zuen norbaitek yuchieraz egingo

zuela. Lehenengo, gurasoak behar genituen». Hori lortzea oso gauza sakon eta hunkigarria izan da.

Azken 200 urteotan asko sufritu du Yuchi herriak: txeroki, seminola zein muscogee indigenekin batera kanporatu zituzten 1830eko hamarkadan AEBetako hego-ekialdeko jatorrizko lurraldetik. Garbiketa etnikoa bultzatu zuen Washingtonek Alabama, Georgia, Hego Carolina, Florida eta Tennesseeko lur aberatsak zuriei emateko, esklabo zituzten pertsonen eskutik kotoia lantzeko. «Gure arbasoak heriotzaren martxa batera behartu zituzten. Nire amonaren amona bizirik irten zen, haurra zela, eta Malkoen Bidetik hizkuntza ekarri zuen hona», dio Richard Groundsek. Aparteko hizkuntza izan arren, «ez dugu aitortza federalik Washingtonen aldetik. Badugu gure hizkuntza, baditugu gure tradizioak, gure zeremoniak, baina Gobernu federalak bere prozesu kolonialean ez zuen nazio berririk eratzerik nahi, gehienak muscogee-kin sartu gintuen, eta beste batzuk txerokiekin». Zorionez, harreman ona dute auzo-herriekin, baina horrek ez du kentzen aitortza behar dutela. «Txerokiak gure zeremonietara etorri ohi dira, muscogee creek jendea ere bai, badakite aparteko herria garela. Era berean, badugu elkarrekin zerbait, elkarrekin aurrera egin dezagun ustea, txeroki nazioa inspirazioa izan da hizkuntzan aurrera egiteko».

Orain, yuchiak eurak bihurtu dira inspirazio iturri hizkuntza biziberritzeko, horretarako sortu duten eskolareduagatik. Larrean ikusitako bisonteez galdetu diegu; bufalo izena ematen diete

200 urteotan asko sufritu du Yuchi herriak: txeroki, seminola zein muscogee indigenekin batera kanporatu zituzten 1830eko hamarkadan AEBetako hego-ekialdeko jatorrizko lurraldetik

«Gure arbasoak heriotzaren martxa batera behartu zituzten. Nire amonaren amona bizirik irten zen, haurra zela, eta Malkoen Bidetik hizkuntza ekarri zuen hona»

hemen. Iaz ekarri zituzten Denverretik, haurren txundidurarako, behin eta berriz entzundako animalia handia eskolan bertan izango zela ikusita. Izan ere, yuchien kulturako zati garrantzitsua da bisontea, eta zeremonietako batek “bufalo-dantza” izena dauka. «200 urtez egin dugu zeremonia hori, nahiz eta bufalorik ez ikusi gure gura-

soek, aitona-amonek, haien aurrekoek; baina bufalo-dantzari eutsi zioten». Animalia-urratsen imintzioa egiten du dantzak. «Bufalo-nazioa gara».

Familia batek ingelesezko asimilazioari aurre egiteko abiarazitako ekimenak hogeitaka haur ditu egun. «Denak gaude elkarrengandik hurbil, egunero ikusten dugu elkar, oso komunitate txikia gara. Lotura horri eustea espero dut, 5-10 urte barru hobeto ikusiko dute zertan ari garen», dio Dezbah-k.

Badatoz haurrak yuchieraz, eskolan ikasitakoa eskolaz kanpo ere erabiltzen dute. Komunitateko harremanak aldaraztea ekarriko duen itxaropena daukate orain, berriz ere yuchiera kalean entzun dadin, ehun urte beranduago.



Eskolako komunitate bizia sortu dute yuchiak. Urtzi URRUTIKOETXEA

EMAZTEEN ESKUBIDEAK, AUZITARA

Manahel al Otaibi saudiar kartzela zigorra ezarri diote, arropa «lizuna» jantzi eta erregimena kritikatzegatik

Manahel al Otaibi, 29 urteko gaztea, erruduntzat jo zuten bere arropa aukerengatik eta interneten bere iritziak adieraztearekin lotutako karguengatik, Amnesty Internationalek eta ALQSTk (Londresen egoitza duen giza eskubideen erakunde saudia) jakitera eman dutenez.

Erakundeek erantsi dutenaren arabera, gazteak emakumeen gaineko tutoretza sistemarekin amaitzeko egiten dituen eskaeretan oinarritzen dira akusazioak. Sistema horrek tutore gizonetako bat izatera behartzen ditu emakumeak, adin nagusikoak izanagatik ere. Halaber, Al Taibik sare sozialetara bideoak igo izan ditu abaiarik gabe erosketak egiten.

Saudi Arabiako diplomaziariek Nazio Batuen Erakundeari jakitera eman zioten «terrorismo delituengatik» jo zutela erruduntzat ekin-tzaile gaztea.

Golkoko Erresuma Sunitak Genevan duen misioaren gutun batek baieztatu zuen Manahel al Otaibiri egindako epaiketa urtarrilean amaitu zela, baina ez zuen kasuari buruzko xehetasun gehiagorik eman.

«Saudi Arabiako agintariak berehala eta baldintzarik gabe askatu behar dute Manahel al Otaibi, 29 urteko fitness irakasle eta emakumeen eskubideen aldeko ekintzailea», galdengin zuen ALQST erakundeak. Giza eskubideen aldeko eragilearen aburuz, erabakiak kontrastean zuzena dakar agintarien erreformaren eta andrazkoen ahalduzkoen aldeko diskurtsoarekin.

📁 JENDARTEA / Nerea LAUZIRIKA

29 urte dauka Manahel al Otaibik. Saudi Arabiakoa da, fitness irakaslea eta emakumeen eskubideen aldeko ekintzailea. Terrorismozat jo ditu epaitegi batek gaztearen janzkera eta sare sozialetan tutoretza sistemaren aurka botatakoak, eta hilabetez desagertuta izan eta torturatu ostean, hamaika urteko kartzela zigorra ezarri diote.

Berria azken asteetan zabaldu badute ere, Manahel al Otaibi 2024ko urtarrilaren 9an zigortu zuten Saudi Arabiako terrorismoaren aurkako auzitegi ezagunean. Aste batzuk geroagora arte, ordea, ez zuen epaia jakitera eman Saudi Arabiako Gobernuak, Nazio Batuen Erakundearen erelatoreek gaiaren inguruko azalpenak eskatu arte.

JANZKERA ETA ADIERAZPENAK

Erantzunak gaztearen karguak bere arropa aukerarekin eta internet bidez zabalduko adierazpenekin lotzen zituen soilik. Besteak beste, emakumeek jasan beharreko gizonen tutoretza sistemaren aurkako jarrera agertu izan du Al Otaibik.

Horrez gain, sententziaren arabera «arropa lizunak» direnak jantzita erosketak egiten bideoak igo izan ditu, fitness irakaslea baita. Janzkeraren aferarekin jarraituz, «dendetara abaia jantzi gabe joatea» ere bada gaztea zigortzeko erabili duten arrazoietako bat.

Bere ahizpa Fawzia al-Otaibik Saudi Arabiatik ihes egin zuen duela bi urte. Izan ere, antzeko akusazioak zirela eta, deklaratzera deitu zuten 2022an, eta, atxilotetaren beldur, herrialdetik ospa egitea erabaki zuen.

Hala ere, Saudi Arabiak Genevan duen Misio Iraunkorren arabera, Manahel al-Otaibi «terrorismo delituen» erruduntzat jo zuten, erresumako Terrorismoaren aurkako Lege Drakoniarraren 43. eta 44. artikuluen arabera.

ALQST erakundearen arabera, arau horrek «edozein pertsona kriminalizatzen du, web orri bat edo programa bat sortu, kaleratu edo erabiltzen duena ordenagailu batean edo gailu elektronikoko batean». Al-Otaibiren familiak ezin izan ditu bere dokumentu judizialak eskuratu, ezta bere aurka aurkeztutako frogak ere.

«Manahelen kondena eta 11 urteko zigorra bidegabekeria izugarria eta krudela da. Atxilotu zutenetik, Saudi Arabiako agintariak era guztietako gehiegikeriak burutu dituzte berarekin», salatu du erakundeak. Izan ere, emakumeen es-

Sententziaren arabera, «arropa lizunak» janzteagatik eta sare sozialetan tutoretza sistemaren aurkako adierazpenak egiteagatik zigortu dute Al Otaibi

Giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeek salatu dute gaztea legez kanpo atxilotu zutela eta bost hilabetez desagertuta izan dutela

kubideen aldeko ekintzailea legez kanpo atxilotu zutela ziurtatu dute, baita bost hilabetez desagertze behartuan mantendu izana ere. Denbora horretan, inork non zegoen ez zekiela, galdekatu, epaitu eta zigortu dute. ALQSTk jakitera eman duenez, Al Otaibi etengabe jipoitu dute.

Amnesty Internationaleko Bissan Fakih Kanpaina ardurdunak azaldu duenez, erakundeak egindako irakurketaren



arabera, epei honek Saudi Arabiako agintarientzat andrazkoen eskubideek duten garrantzia eta tokia azaleratu du, baita disidentzia baketsuarekiko duten jarrera ere.

Lina Althathloul ALQSTko Zaintza eta Sustapen ardura-dunaren adierazpenen arabera, «Manahelik askatasunez jokatu ahal izango zuela uste izana bat dator Mohammed bin Salman printzeak emakumeen eskubideen mesedetan egin omen diren erreformei buruz zabaldu duen kontakizunarekin. Horren orde, herrialdeko agintariek Saudi Ara-

biako emakumeak kontrolatzeko erabakia hartu dute».

Nahiz eta agintariek andrazkoek gizonen tutoretzapean pairatu beharreko murrizketetako batzuk nasaitu dituzten, erabat diskriminatzaileak diren ezaugarri ugari mantentzen dira, sistema bera desberdinkerian oinarrituta dagoelako.

ERREFORMA

2022ko Estatus Pertsonalaren Legeak, ustez erreforma sakona ekarri behar zuenak, sistemaren elementu murriztaile asko ezabatzeko beharrean,

matxismoa arautzeko balio duela salatu dute erakundeek, ezkontza, dibortzioa, seme-alaben zaintza eta herentzia barne.

Deigarria da Al-Otaibik printzeak goraiapatutako erreforman zuen fedea. Izan ere, Deutsche Welle telebista alemaniarrean 2019an egindako elkarrizketa batean, Saudi Arabiako erresuman gertatzen ari diren «aldaketa erradikalak» azaldu zituen, jantzien kodearen erreformak barne, eta esan zuen aske sentitzen zela bere iritzia adierazteko eta gustuko zuena

Saudi Arabiako agintariek emakumeen egoerarekin lotutako erreformak egiten ari direla badiote ere, desberdinkeria matxistak legezko babesa du oraindik ere

Azken urteetan gero eta gehiago dira sare sozialen bidez adierazpen askatasuna erabiltzeagatik atxilotu dituzten saudiak; horietako asko andrazkoak dira

jantzeko, printzearen adierazpenak oinarri hartuta. Hala ere, 2022ko azaroan atxilotu zuten. 2023ko urtarrilean, epaileen aurrean agertu zen eta uztailearen 26an, bere audientzia atzeratu zuten data berririk zehaztu gabe.

2023ko abenduan, giza eskubideen aldeko erakundeek salatu zuten Al Otaibik hilabete baino gehiago zeramala desagertuta.

Bost hilabetez indarrez desagertuta egon zen, 2024ko apirilera arte. Hilaren 14an, familiarekin harremanetan jarri eta esan zien inkomunikatuta zegoela eta hanka bat hautsita zuela tratatu txar fisikoen ondorioz. Osasun arreta ukatu ziotela ere esan zien.

AURREKARIAK

Azken bi urteetan, Saudi Arabiako auzitegiek kartzela zigor luzeak ezarri dizkiete dozenaka pertsonari sare sozialetako adierazpenengatik, tartean emakume asko zigortu dituzte: 27 urteko Salma al-Shehab, 30 urteko Fatima al-Shawarbi, 40 urteko Sukaynah al-Aithan eta 45eko Nourah al-Qahtani.

2019an, herrialdea turismoari irekitze aldera, agintariek ziurtatu zuten andrazko turistek jantzi kodeak malgutu zizkietela. Hala ere, kontzesio hori ez diete herritarrei zabaldu.



Al Otaibi, 2019an, Saudi Arabiako hiriburuan. FayeZ NURELDINE | AFP



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Lotura emozionalak

Lotura emozionalak gure garapen psikosozialaren oinarria eta sentitzen dugunaren jatorriaren zati handi bat dira. Animalia sozialak garen aldetik, besteekin lotura horiek ezartzea gure beharretako bat da. Maitasunaren eta enpatiaren bidez, bi pertsona lotzen dituzte. Ez dute talde kohesioatuak mantentzeko bakarrik balio: babes, egonkortasun eta segurtasun sentazioa sortzen dute eta gizarte-testuinguruak, familia-harremanak edo denborak aldatzen dituzte. Gizakiak arrazoitzen dugun izaki emozionalak gara, horregatik, emozioen arte ona ulertzeak, menderatzeak eta aplikatzen jakiteak ongizatea ez ezik, askoz harreman hobekizatea ere ahalbidetzen digu.

Jaioberriak maitasuna, ontasuna eta arbuioa antzemateko gai dira. Horregatik, bizitzako lehen urtean, nahiago dute pertsona batzuekin egon, eta ez beste batzuekin. Lehen urratsak egin aurretik ere, haurra hasia da emozioekin erlazionatzen eta bere garapen emozionala izango denaren lehen zutabeak jartzen, bitzta osoan zehar iraungo duen prozesua. Garapen horren lehen mugarrietako bat lehen lotura afektiboak sortzea izango da. Guraso edo tutoreen arretaren bidez, haurra modu fisiko, mental eta emozionalean garatuko da. Hori modu positiboagoan gertatuko da, zainketen kalitatearen arabera, hau da, helduek adingabearen beharrei erantzuteko duten gaitasunaren arabera.

Bestalde, hazi ahala, pertsonak familia-nukleotik kanpoko beste lotura batzuk eratzen ditu. Horrela, lotura emozionalek hainbat forma hartzen dituzte lotzen gaituzten pertsonekin ditugun harremanen arabera. Anai, ahizpa eta arriben arteko lotura dugu. Tutore edota guraso eta seme-alaben artean sortzen dena, seme-alabekiko zaintza eta erantzukizuna ditu ezaugarri. Familiakoa, odoleko ahaideen artean edo nukleo baten eraketaren gainean

ezartzen dena. Erromantikoa, lotura emozionalari erakarpen fisiko eta psikologikoa gehitzen zaio, eta, batzuetan, sexuala. Adiskidetasuna, bikoteen arteko lotura eta konfiantza oinarri duena eta talde sozialeko beste kide batzuen bano intimitate-maila handiagoa duena.

Lotura emozionala funtsezko zutabe batetik abiatzen da: segurtasun-sentsazioetik. Edozein unetan guretzat beti eskuragarri dagoen figura bat dagoela jakiteak seguru, baliozkotuta eta zoriontsu sentiarazten gaitu. Denok ditugu beharrik eta nahiak, etengabe hazten ari diren pertsonak gara eta horretaz jabetzen den eta, gainera, artatzeaz arduratzen den figura gure ondoan izateak poztasun handia ematen digu. Izan ere, lotura emozionalak ez dakar soilik sentitzea, elkarrekiko ekintza eta ahalegina ere eskatzen ditu.

Gure esperientziei eta pentsamenduei buruz iritzia emateak eta hitz egiteak, entzuten gaituztela eta, beste ezereen gaitetik, ulertzen gaituztela jakiteak barne oreka handia eskaintzen du. Hau guztia erabakigarria da lotura emozional onak eraikitzeko. •

saioaaginako@gmail.com



Eskuragarri dagoen figura bat dagoela jakiteak seguru, baliozkotuta eta zoriontsu sentiarazten gaitu. GETTY IMAGES

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Alderdien interesengatik gotortzen ari da EAJ

Europako Parlamenturako hauteskunderen egungo ziklo elektorala amaituko da, hori esateko segurtasunik ez badago ere gaur egungo egoera aldakorrean. Pedro Sanchezek eragin berri duen azken krisia dugu adibide, eta Kataluniako hauteskunderen ostean mugimenduak eta are astinaldiak egon daitezkeela ezin dezakegu baztertu.

Hauteskunderen ostetik gobernuak ere osatu dira. Eredu ezberdinak ikusi ditugu. Batzuk, berritzaileak; beste batzuek, ordea, betiko lepotik burua. Nafarroako Gobernuarena eta haren ondotik Iruñekoarena izan ditugu lehenengoetan. Nork esango luke duela hamar urte halakorik gerta zitekeenik. Inork ez zuen sinistuko, eta are gutxiago UPNk. Bi porrot izan ditu jarraian Nafarroako Gobernura bueltatzeko saiakeran, eta alderdiaren gainbehera ikusgarria izan da. Hain da nabarmena, ezen Cristina Ibarrolak, antza, norabidea ere berritu nahi duen. Hori on-doriozta daiteke egunotan akordioetara iristeko borondatea agertuz egindako adierazpen deigarrietatik.

EAeko Gobernuaren osatzeko bidean dago, eta, kasu honetan, zaharrak berri. EAJk eta PSEk akordiora iristeko lehen urratsak egin dituzte eta, paparra puztuta egindako adierazpenak adierazpen, inork gutxi du zalantzan ituna berandu baino lehen egingo dela. Programa ikustekoa izango da, ez horrenbeste adostasunak nola zehazten dituzten egiaztatze, desadostasunak nola ezkututzen dituzten jakiteko baizik. Arreta, azkenean, Gobernuo sailen banaketan egongo da.

Zaharrak berri. Eta berria izaten ari denak zaharren kutsu sakona du. Ez da oso ondo ulertzen zergatik Imanol Pradalesek ez dien beste alderdietako buruei deitu lehen harreman bat izateko, eta zehazkiago bigarren indarrari. EAJk eta EH Bilduk parlamentari ko-

puru berbera dute. Ez du sendotasuna azaltzen, gotortzeko gogoia baizik.

Irakurketa kezkarria da, beste berri batzuk ere kontuan hartzen baditugu. Esate baterako, EAJk eta PSEk osatzen duten Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du Batzar Nagusiek emandako aginduak bere gain hartzeko eta betearazteko konpromisoa hartu nahi izan, nahiz eta Ganberak horretarako deia egin. Bere gutxiengoa agerian geratu da, baina hausnarketarako bidea hartu baino, badirudi gotortzeko gogoia duela Eider Mendoza buru duen taldeak ere.

Gipuzkoan alde handiz irabazi zuen EH Bilduk, eta gobernuaren eskuratzeko PPren babesaren behar izan zuten EAJk eta PSEk, beste garai bateko jokabideari eutsiz. Nafarroarekin edo Ipar Euskal Herriarekin –hemen ere Herriko Etxeetako hauteskunderen ostean ikusi ahal izan zenez–, alde izugarria da. Gainera, hauteskunde

PSE atzerakoi baten gatibu, badirudi EAJk herri interesen arabera aurrera egiteak alderdiaren interesak kaltetuko dituela metabolizatu duela

autonomikoetan, Gipuzkoan EH Bilduk bere nagusitasuna areagotu du eta EAJk bozak galdu ditu, are eta ageriagoan utziz Foru Aldundiaren gutxiengoa.

Pentsa zitekeen Gasteizko Legebiltzarrean aro berri bat abiarazteko aukera egon bazegoela; besteak beste, protagonista berriak ere badaudela aprobeztatuz. Estatututik politikaren eztabaidari bide eman eta zerbaiteara iristeko, esate baterako. Herri interesen arabera jokatzeko, gehiegi amestea ez bada. Hala bedi.

Oraingoz, PSE atzerakoi baten gatibu, badirudi EAJk herri interesen arabera aurrera egiteak alderdiaren interesak kaltetuko dituela metabolizatu duela. •

ASTRAKO BABESLEKUA

Astra eta bunker zaharra memoriaren transmisioaren aterpe dira Gernikan

Aurten 87 urte bete dira frankisten agindupean abiazio alemaniarrek Gernika bombardatu zuenetik. Apirilaren 26 seinalatu horren atarian, Gernika-Lumo memoria historikoaren leku izendatzen duen erabaki ofiziala heldu zen. Euskal Herrian, Iruñeko Ezkabako mendiko gotorlekua eta La Cumbre jauregiak jasotako neurriko aitortpena jaso du Gernikak. Aintzatespena, gainera, hiriburu osora zabaldu da. Hura ezagutzera emateko, ekitaldi ofiziala egin zuten erakunde nagusiek herrian, Iñigo Urkullu lehendakari buru izan zuena. Astrako babeslekua izan zen ekitaldi ofizialaren agertokia. Bi gonbidatu nagusi izan zituen: bonbardaketatik bizirik atera ziren Maria del Carmen Agirre eta Crucita Etxabe gernikarrak.

Urteurrenaren harirako ekitaldiak atzean geratu direnean, memoria historikoaren transmisioan espazio esanguratsua den Astrako babesleku horretara itzuli da GAUR8, oroimena belaunaldi berriengana helaraztea helburu duen herri ekimen baten eskutik, bonbardaketatik zutik gertzen den legatu bakanetako horretatik memoriaren hariari jarraipena eman dion proiektu herritarra ezagutzeko.

Babeslekuan bertan izen zen hitzordua, hamaika sentsazio sorrarazten dituen hormigoizko bunker zahar horren hormen artean. Bisitaldian, Gernikan memoriaren inguruan lanean urteak daramatzan Lobak ekimenak lagundu zigun, herri egitasmoa bera jaio zen kultur espazio autogestionatua den Astratik metro bakar batzuetara.

MEMORIA / Nerea GOTI

Astra kultur espazioa eta ondoko bunker ikaragarria dira Gernika zaharretik geratzen diren elementu bakanetakoak, eta hala ere, memoriaren indar guztiaren aterpe izaten jarraitzen dute. Etxean jasotakoaren transmisioan lan egiten duen Lobak ekimenak zabaldu du atea, hormigoizko korridore horrek dioen guztiari bide emanez.

Ateak zabaldu eta minutu bakar batzuetan, bisitari batzuk agertu dira babeslekuan. Astra sormen eta kultur espazioaren ondoan kokatuta, datu historikoak biltzen dituzten panel informatiboak daude inguruan. Informazio puntu horietara helduta, berehala iragartzen da bunkerrak bisitariarentzat duen magnetismoa. Orain, gainera, estaldura handi batek babesten du eraikuntza zaharra, haren dimentsioa eta proiektzioa handituz.

«Gure ustez, egunean zehar zabalik egon beharko litzateke, jendeak sartzeko aukera izan dezan», aipatu du Hibaí Muniozguren Lobak ekimeneko kideak. Babeslekura bisitaldi gidatuak antolatu ohi ditu Turismo bulegoak, baina saio horietatik kanpo itxita egoten da babeslekua. Udalak eta Astrak bunkerraren erabilera arautzen duen hitzarmena dute sinatuta.

Azken urtean, hilabeteak eman ditu zerratuta. Bonbardaketaren urteurrenaren atarian, atek zabaldu ditu berriro eraikuntza zaharrak, irudi berria erakutsiz. Egurrez egindako egitura handi batek babesten du orain Gernikan oroimeneren elementu esanguratsuen izango den eraikuntza. Udalak azaldu zuenez, estaldurak babeslekuak zituen hezetan arazoak saihestuko ditu.

Eraikuntza horren historian sakondu dugu Hibaí Muniozguren Lobak ekimeneko ordezkariarekin izandako solasaldian. Babeslekua Talleres de

Gernika lantegiak altxatu zuen 1936ko irailean. Ez zen arma lantegiak eraiki zuen bakarra, 50 metro ingurura beste babesleku bat sortu zuen. Fabrikako langileak babesteko pentsatuta zeuden biak. Kontakizunek diote atek zabalik izan zituztela herritarrentzat. Sasoi hartara itzulita, gernikarrak aipatu du armagintzan aritzen zen fabrika gernikarra goi mailako jarduera ekonomiko bat zela, puntako teknologia erabiltzen zuen lantegia.

Hala ere, Astrakoak ez ziren Gernikak erasoetatik babesteko zituen puntu bakarrak, biak



bunker sare baten barruan zeudela azaldu du. «1936. urtean agindua eman zuen Gobernuak herritarrak babesteko sistema bat eraikitzen joan zedin. Gernikan Castor Uriarte arkitektoak uneko ahalmenaren araberrako babesleku batzuk diseinatu zituen. Seguruenak horiek ziren, Talleres de Gernikako bunker biak, hormigoiez eginak, sendoenak, baina herrian babesleku moduko beste puntu batzuk egon ziren», gogoratu du Muniozguerenek.

Babes sare hori osatzeko, mota ezberdinetako egiturak


egokitu ziren: txalet batzuetan sotoak egokitu ziren herritarrak babesteko, Udaletxeko beheko solairua ere horretarako prestatuta izan zen, hirigunean puntu ezberdinetan egurrezko eta burdinazko egiturak egin ziren, zakuekin babesten zirenak, Pasealekuan ere egokitu ziren babeslekuak tuneletan...

Astrakora itzulita, hogeit metro baino gehiagoko luzera duen hormigoizko eraikin gris horrek bi ate txiki ditu muturretan. Sarrera moduko espazio txikiak ditu. Gune zabalenera sartzeko, ate txiki bat gurutzatu behar da. Barrualdeko sabaiak ez dauka altuera handiegirik, eta, argizatuta badago ere, denbora tarte batera argiak itzaltzen dituen sistema du. Argia doanean, sakonagoa da sentsazioa.

EZ ZEGOEN HEGAZKINEN BISTARA

Korridore luze horren horma lodietan aireztapena kontrolatzeko zuloak daude, burdinazko xaflen sistema batekin itxi eta zabal daitezkeenak. Eskuak horman jarrita, gogoratu du Muniozguerenek, sarreretan gudariak edo milizianoak kokatzen ziren. Barruan 200 lagun ingururentzako tokia zegoen. Babesleku ez zegoen hegazkinen bistara, eraikin baten barruan egon omen zen, kanpotik ikus ez zedin.

Gaur egun Astra izenarekin ezagutzen den kultur gunea lantegiko eraikinetako bat izan zenean altxatu da. 2006. urtean, Astra okupatu zenean, Udalak eraikin hori erosi eta herriarentzat bereganatzea lortu zuela gogoratu du Muniozguerenek, eta ez zen edonolako lorpena izan. Bere burua «tresna konpartitu» gisa aurkezten duen herri proiektua komunitateak berak ku-



deatzen du autogestioaren bidez. Herri ekimenak berak plazaratu du «antolatzeke, pentsatzeko eta sortzeko bide berriak batu nahi» dituen espazioa dela, askotariko ekimen eta jarduerak biltzen dituen. Memoria historikoaren transmisioarekin oso lotuta –horren parte den espazio batean kokatuta, gainera–, bide eman die formatu eta adierazpen artistiko ezberdinei, eta testuinguru horretan jaio zen Lobak ekimenaren jarduna.

«Belaunaldi oso bat herriko historiarekin harremanetan jarri du, eraikin historikoa, arma fabrika... eta uste dut horren adibide direla 70. urteurrenean Astran izan ziren topaketak, “Ez ahaztu etorkizuna”; kontzeptu horren inguruan, memoria inportantea da oraina ulertzeko eta etorkizunari begiratzeko», nabarmendu du Muniozguerenek Astrak duen garrantziaz.

Astra jaio eta sei urtera sortu zen Lobak ekimena. Muniozguerenek gogoratu duenez, okupazioaren testuinguru hartan berreskuratu zen babesleku bera, eta babeslekuaren ondoan esanahi berezia

duen sirena sistema beraren aurkikuntza beste une garrantzitsu bat izan zen.

SIRENA AURKITU ZUTENEOKA

«Gaur existitzen ez den eraikin baten barruan zegoen, botatzeko arriskuan zegoen eraikin batean zegoen. Astrako okupazioan parte hartu zuten hiru gazte sartu ziren eta sirena berreskuratu zuten», kontatu du gernikarrak.

Orduan ez zekiten jatorrizko sirena zen, bonbardaketan erabilitakoa. «Oso egoera txarrean zegoen», eta piezaz pieza desmuntatu, garbitu, eta berriz muntatu zuten. 2007. urtetik sirena hori aktibatzen da urtero bonbardaketaren urtemuga egunean, eta bai, Astrako jatorrizko sirena bera da.

Sirena zahar hura eskuetan zutela, zeukan txapa zen informazioa bilatzeko pista bakarra. Txapa zahar hartan “La Electricida Sabadell” irakur zitekeela gogoratu du Muniozguerenek. Hari horretatik tiraka, Sabadellgo istorioa museoarekin jarri ziren kontaktuan. Lortu zuten hango Genis Ribe historialariarekin harremanetan jartzea, eta, txaparen erre-

Ezkerreko argazkian, Astrako babesleku, aurtan jarri dioten estaldura egiturarekin. Goialdeko irudian, Hiba Muniozgueren Lobak ekimeneko kidea, bunkerraren sarrerako atearen ondoan.
Aritz LOIOA | FOKU





ferentziak eta neurriak hartuta, baieztatu ahal izan zuen Sabadellen kokatutako lantegi batean fabrikatua zela eta sirena antiaereoaren lehen modelo bat izan zitekeela.

Sirenaren istorioa Astran bertan dago ikusgai. Urtero aktibatzen dute 15.45ean, bonbardaketa hasi zen orduarekin bat eginez. “Lau minutu” izenarekin ezagutzen da urtero errepikatzen den une sinbolikoa.

Gernikarrentzat ia derrigorezkoa da Astrako babeslekua bisitatzea, batez ere bonbardaketaren kontakizunak hain presente izan dituztenentzat. Memoriaren transmisioak urrats berriak egiten ditu, baina ez zaio beti dimentsio bera ematen. Adinak, testuinguruak, informazioak... paper nagusi bat betetzen dute.

Azaldu du Muniozguren, adibidez, etxean bizirauleak egon direnean, gaztetan zaharren oroitzapen horiek sarri-

tan errepikatutako istorio bilakatzen direla, ez zaiela beti garrantziaren neurria ematen.

Gernikarrak berak bizitako esperientzia partekatu du: «Nire amama Asuncion Garmendiak Talleres de Gernikan egiten zuen lan, bizi osoan entzun ditut istorioak. Amamak sarritan kontaktzen zituen bonbardaketaren inguruko gauzak. Gaztetan ez duzu kasu askorik egiten, baina adin batetik aurrera interesa piztu zitzaidan». Etxeko kontakizu-

Hibai Muniozgurenek Lobaken jaiotzan izan ziren bi hausnarketa gogoratu ditu: kontakizuna zuzenean jaso zuen azken belaunaldiaren ardura, lehena

Bigarrena, memoriaren transmisioan beharrezkoa zela gazteei zuzendutako eskaintza. Bi ardatz horien inguruan egin du lan herri ekimenak

Lerro hauen gainean, Gernikako bonbardaketako bi biziraule: Carmen Agirre eta Crucita Etxabe, erakundeek Astrako bunkerra aurkezteko egindako ekitaldian. Ondoko orrialdeko irudian, babeslekuaren barrualdea, haren alde bateko sarbideko atetik ikusita. Marisol RAMIREZ-Aritz LOIOLA | FOKU

nei beharrezko proiektzioa ematea ere transmisioaren zereginetako bat da.

AZKEN BELAUNALDIA

Kontatu duenez, etxetik kazetari mordoa igaro zen amamaren testigantzak biltzera, alemaniarak, suediarak... «Amamak dena gordetzeko ohitura zeukan, eta kaxa bat edukitzen zuen armairuan, kaxa hori nik daukat orain. Niretzat data berezia da apirilaren 26a, eta hilabetea orokorrean». Kutxa berezi horretan, Alemaniara egindako bidaiaren eta bertan egindako ekitaldiaren oroitzapenak gordetzen zituena, bonbardaketarekin lotutako liburuak... «Eta nik jarraitzen dut horrekin lotutako materialak bilatzen».

Memoria historikoarekin lotutakoa zuzenean jaso dutenen azken belaunaldia dira, eta hausnarketa hori Lobak ekimenaren jardunaren abia-

puntu izan zen hausnarketa-aren ardatzetako bat izan zela gogoratu du Muniozguren.

«Hausnarketa bi egin genituen: azken belaunaldia ginea testigantza horiek etxean zuzenean entzun ditugunak, eta jasotako hori gazteei eman behar zitzaiela. Ikusten genuen, gainera, ez zegoela gazteei zuzendutako eskaintzarik. Ekintza instituzionalak eta beste mota batzuetakoak egiten ziren, baina ikusten genuen gazteen jakin-mina bul-tzatzeko ekintzak falta zirela».

Aipatu duenez, Astraren inguruan ekimen ugari jaio dira, autogestioaren kulturari segida emanez. Lobak ekimena bera ez dago elkarte gisa erregistratuta. Memoriaren transmisioari eskaintako ibilbidea osatu dute, momentu ezberdinak izan dituen. Hasierako urteetan gazteon proiektuak sustatzeko elkargunea izan zen, eta azken urteetan ikastetxeekin egindako lanean zentratu dira. Astraren historia kontaktzen dute, «ehun urte baino gehiago daukan eraikin bat da, baina gure lana da historia kontaktzea eta batez ere jakin-mina piztea».

Ikastetxeekin burutzen duten lan horretan mezua adinen arabera egokitzen dutela zehaztu du: «Ez gara historia-lariak, kontaktzen dugu jaso dugun hori, etxean jaso duguna, eta Astraren istorio propioa. Txapa handiegirik eman gabe, haiekin hitz egin, haiei entzun eta haiekin momentu on bat pasatzea da helburua».

Kontatu du emaitzak ere ikusi dituztela, sirena aktibatzeke herriko laguntzaile gazteak izan baitituzte, esaterako. Sirenaren hots ikaragarri horien aktibazioan urtero pertsonaia edo talde esanguratsuek hartzen dute parte. Aurten, Eñaut Elorrieta abeslari gernikarra

eta Ikrame Benzyme izan dira arduradunak, Palestinako sarraskia salatzen duen “Gernika” abestiaren bertsio eguneratuari ahotsa jarri dioten bi kantariak. Ekitaldia bera Israel Gazan gauzatzen ari den genozidioaren salaketa izan zen, “Gernika gehiagorik ez” leloa jarraituz.

‘GERNIKA 2037’ EUSKARRI DIGITALA

Memoriaren lanketari dago-kionez, “Gernika 2037” proiektua mahai gainean jarri du Lobak ekimenak azken urteetan. Jada urte batzuk dituen egitasmoa memoriaren transmisioan egindakoaren emaitza da, baita erakusleho eta memoria gordetzeko tresna ere, neurri handi batean. Oroimena gordetzeko egindako ekitaldi bakoitza mosaiko handi baten ale bat da, memoria hori testuinguruan jarri eta beste sarraski batzuetara begira egon dena.

Apirilean ikastetxeetara helarazitako materialean webgunearen erreferentzia dago. Eskoletako eskaintza horretan, adinen araberrako proposamenak lantzen dituztela zehaztu du Muniozguerenek, ekimenak duen izaera pedagogikoan azpimarra jarritz.

Webguneak herriko mapa interaktiboa ere proposatzen du, adibidez. Atal horrekin lotuta, Lobakeko ordezkariak gogoratu du materialaren artean hainbat irudi eskaintzen direla, data ezberdinetakoak, bonbardaketaren inguruko argazki, bideo eta euskarri ezberdinekin batera. «Hor, historiaren beste zati bat dago, bonbardaketaren ostean Gernikaren berreraikuntza jasotzen duena, herria nola berreraiki zen erakusten duena, zeren Gernikaren %90 inguru suntsitu zuen bonbardaketak,

eta garaiko oso zantzu gutxi geratzen da, Astra bera, babeslekua edota sirena kenduta».

Mapa aurkezteko, azpimarratzen du herri ekimenak «Gernikako bonbardaketaren memoria gordetzeak belaunaldi ezberdinen arteko ahalegina eskatzen» duela, oroimenaren transmisioan jarraitzeko». Zeregin horiek «guk geuk, bonbardaketa hura sufritu zuten pertsonen ondorengook, egunero zapaltzen ditugun kaleen eta espazioen perspektibatik, memoriaren mapatik» ekiteko konpromisoa islatzen dute.

«Proiektua bonbardaketaren 100. urtemugari begira jarrita dago, eta memoriaren gaur egungo tresna moduan planteatu dugu, begirada etorkizuneari jarrita», zehaztu du euskarri digitalaren gainean.

Ikastetxeei luzatutako proposamenean, eurek aukeratzeko dute Lobak ikasgelara bertaratzea. «Proiektore bat baliatuz, Gernikaren historia kontatzen dugu saio horietan,

herriko historiatik ezagutzen dugun parte hori, egiten dugun lana..., eta eskoletako jarduera horiez gain, azken urteetan bisita ireki zabal bat egiten dugu bonbardaketaren egunean bertan edo dataren inguruko asteburuan».


Memoriaren transmisioari ekarpen egiten dion Lobak lan horrek ezaugarri bereziak ditu Muniozguerenen esanetan. Erakundeek antolatu ohi dituzten ekitaldi solemneek izaten duten oihartzunaren ondoan, «gu beste bide batetik goaz», dio gernikarrak. «Autogestio kultura batetik gatoz, gureak ekitaldi xumeak dira, irudipen dosi handiak dituztenak askotan». Nabarmentzen duenez, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte memoriaren haria elikatzeko: «Erakusketak egin izan ditugu babeslekuan, kalean..., ikus-entzunezko piezak, kontzertuak.... Eta hori guztia webgunera eramanez dugu, edo YouTubera. Mota

Memoriaren inguruko hotsandiko ekitaldien ondoan, autogestioaren eredutik landu eta irudimen handiko ekimen xumeen aldeko apustua egiten du Lobakek

Ikastetxeei zuzendutako eskaintzan zentratuta, argi diote ez direla historialariak; jasotakoa transmititu eta horretaz hitz egitea da helburua, nabarmendu dute

askotako jarduerak izan dira, nahiko sortzaile izan baikara gauza berriak probatzen».

Saio horietan haurren arreta bereziki zerk pizten duen galdetuta, historia bera, babeslekua eta sirena aipatzen ditu. Eransten duenez, «ume eta gazte askok badakite Astra zer den, harremana izan dute Astrarekin. Azkenean, erreferentzia bat da Gernikan, espazio handi bat ekimen pilo bat antolatzen dituen ume, gazte eta helduentzat». Astrak jarraitzen du oroimena eta haren aterpea izaten.



Astrako babeslekuaren barrualdea, haren alde bateko sarbideko atetik ikusita. Aritz LOIOLA | FOKU



Amaia BALLESTEROS

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK

SADER ETA PROFERSA KANPORA!!!

ABURTOREN ETXERA ERAMAN DEZATELA KEA ETA ZABORRA!

BILBOKO PORTURA ERAMANGO DITUZTELA ESAN DUTE. ZIERBENARA.

ARNASA HARTZEKO ESKUBIDEA DUGU! HONDAKIN ARRISKUTSUAK KANPORA!

ENPRESA HORIEN JARDUERA BEHARREZKOA DA, BAINA BEREBIZIKOIA DA LEKU EGOKIAN KOKATZEA ETA AZPIEGITURA EGOKIA ETA KONTROL ZORROTZAK IZATEA.

BAI, BAINA BETI BERDIN! KAKA GUZTIA EZKERRALDERA EDO MEATZALDERA DAKARTE...

BITARTEAN...

KUTSATZAIILEEN EMISIOA... BLA, BLA, BLA...

EKONOMIA ZIRKULARRA... KAR, KAR...

INGURUNE-BAIMENAK... KAR, KAR...

ZABORTEGI BERDEAK...

ZORROTZAN EZ DUGU LANTEGI KUTSATZAILERIK NAHI.

ETA ORTUELLAN ERE EZ!

AUZOETAN AIRE GARBIA NAHI DUGU.

KANPORA, BAINA NORA??

The comic strip is divided into four panels. The top-left panel shows two yellow barrels with skull and crossbones symbols, one of which is tipped over, spilling a green liquid. The top-right panel shows a group of colorful, anthropomorphic insects (a red worm, a purple insect, a blue beetle) talking. The middle-left panel shows a blue insect, a red insect, and a ladybug. The middle-right panel shows a yellow insect and a green insect. The bottom panel shows four men in suits wearing gas masks, standing above a line of trucks carrying various hazardous waste symbols (fire, biohazard, radiation, skull and crossbones, and a warning sign). The artist's signature 'AB 24' is visible in the bottom right corner of the comic.

Parasito hutsa

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Behin batez esan zidaten ez da-
kidala zoriontsu izaten. Go-
gorra egin zitzaidan hitzez
hitz entzutea, baina, zintzota-
sunez aritzekotan, egia da etor litez-
keen albiste txarren estatistika eta pro-
babilitate jokoan aritzea dela nire
burmuinaren dantza kuttunenetakoa:
kezkatzeta bizi-estilo, eta besterik gabe
pozik sentitzea beldur-hauspo, gehiegi
erlaxatutakoan iristen baitira zaplazte-
korik handienak.

Krokis emozional hori erreparatzen
nator bolantean, eta berdeak eta haren
tonalitate guztiek inguratzen naute
ibilgailuko leihotetan barrena; bai ede-
rra gure udaberria. Zorteko sentitzen
naiz halakoetan, irratian gerra, erailke-

ta matxistak eta lehorreak aipatzen di-
tuzten bitartean, ni saia naitekeelako
mundutik ihes egiten, mendiko oine-
takoak jantzi eta ezkaratzetik tontorre-
ra zuzenean igoz. Zer ote da hori: poza
bilatzea ala tristura erlatibiza dezake-
zula sinestea?

Beharbada gehiago da besteren mine-
tik norberarena pixka bat sendatzea;
besteen saminaren parasito izatea, fi-
nean. Duela astebete kontziliazio-emo-
zio-egokitze krisi betean baikinen
etxean, eta gaua eta eguna eman ditut
zurrumbilo hartatik irteteko gaitasunik
izango ez genuela pentsatuz. Baina tira,
badirudi pasatu dela olatu hau, jaitsi
dela aparra, bistaratu dela gure hondar-
tatzkoa.

Eta badakit pasatu dela, autoan noala,
zutabe honetarako ideia konkreturen
baten falta izan delako buruak gogora-
razi didan lehenengo kezka, eta ez beste
ezer. Lehorre bat, inondik ere, baina or-
denagailu aurrean jarri eta, teklak
gehiago edo gutxiago goxatuz, amaitu
litekeen gerra bat.

Ez naiz ausartu eskua leihotik atera eta,
hura gora eta beheara goxo mugituz, olatu
bat imitatzen; N-1 errepedea ez da atrez-
zorik egokiena performance horretarako.
Albisteak albiste, ordea, gaur iragarki
hark transmititzen zuen lasaitasun-poz-
bake sentsazio batek zeharkatzen nau, as-
paldiko partez. Zer egingo diogu ba: para-
sito hutsa naiz, tarteka zoriontsu izaten
ikasi duela sinetsi nahi duena. •

Eraldaketarako zirrikituak

Miren AZKARATE
BADIOLA

Hainbeste albiste gogor, latz
eta jasanezinen artean, ba-
dira noizean behin bere txi-
kitasunean poz handi bat
ematen didaten albisteak. Ohitu egin ga-
ra, bai, bai, ohitu, eta ondorioz, ezer pa-
sako ez balitz bezala jokatzeko dugu Ga-
zan egiten ari diren sarraskiaren
aurrean, edo emakume bat bere bikotea-
ren eskuetan eraila denean, edo edozein
adin edukita ere etxegabetzen ari diren
pertsona horien guztien albisteak entzu-
tean eta ikustean. Horregatik esaten dut
askotan gizaterian sinesmen osoa galdu

dudala, sinesgaitza egiteraino zertarako
gai garen eta nola begiratzen dugun bes-
teok beste alde batera.

Baina hori guztia gertatzen ari den bi-
tartean eta gure bizitzekin aurrera egi-
ten dugun bitartean (ze erremedio), ba-
dira ekintza xumeak: adibidez,
Bruselan, eliza bat rokodromo bilakatu
dute, edo Bilboko zezen plaza liburutegi.
Ezin da inondik inora aurreko guz-
tiarekin konparatu noski, huskeria dira
goian aipatutako izugarrikerien au-
rrean. Baina tira, txikitutasunean eta ger-
tutasunean Elizaren erabilpen egoki bat

egitea behingoz eta zezenak torturatu
eta hiltzen den (eta hori ospatzen den)
lekua benetako kultura bihurtzeko poz
txiki bat eragiten dit. Behingoagatik
kultura zabaltzen zutela esaten zuten bi
leku instituzional karka horiek beneta-
ko kultura eskainiko dute.

Aldaezinak zirela uste genuen gauzak
aldatu daitezkeela erakusten du, eta ho-
rrek esperantza sortzen du, gauza txi-
kiak aldatzen badira handiak ere aldatu
ditzakegula sinestera eramaten bainau.
Hori bai, borrokatuz, ez dago beste bi-
derik. •



Nerabeen erdiek baino gehiagok, zehazki %59k, interneten duten jarduera ezkutatzan dute: nabigazio-historia garbitzen dute, gurasoak gertu daudenean esploratzailea ixten edo ezkutatzan dute, txat mezuak eta bideoak ezabatzen dituzte, izena ezkutatzan nabigatzan dute, gurasoek kontrolatzen ez duten gailu bat erabiltzen dute, eta interneten duten jardueraz ez dute hitz egiten familia-ekarrizketetan edota zuzenean gezurra esaten dute. "Life Behind the Screens of Parents, Tweens, and Teens: McAfee's Connected Family Study" inkestaren ondorioetako bat da, argi erakutsiz etxe askotan gurasoek ez dakitela zer egiten duten beren seme-alabek sareara konektatzen direnean.

Adituak ez dira harritzen datu horien aurrean, eta argi du-

NERABEAK INTERNETEN

Nola babestu haien jarduera, gurasoei zertan dabiltzan ezkutatzan badiete?

TEKNOLOGIA / GAUR8

Gurasoen kezka handietako bat izan ohi da beren seme-alabek interneten eta sareetan duten jokabidea kontrolatzea eta horrek ekar ditzakeen arriskuak ekiditea. Baina ikerketa baten arabera, nerabeen ia %60k ezkutatu egiten die jarduera hori gurasoei. Nola babestu zertan dabiltzan ez badakite? Hona hemen argibide batzuk.

te logikoa dela nerabeek interneten egiten dutenari buruz xehetasunik ez ematea gurasoei, baina horrek suposatzen du ziberjazarpenaren, interneteko kontuen lapurretaren edota datu pertsonalen baimenik gabeko erabileraren aurrean babestuta egon behar dutela. Bereziki, McAfeeren txostenean agertzen diren da-

tuak kontuan hartzen badira. Izan ere, 10-14 urteko gazte-txoen %36k diote haien benetako nortasuna ezagutzen ez duten pertsonekin hitz egiten dutela internet bidez, eta kopuru hori %41era igotzen da 15-16 urtekoen artean.

«Seme-alabak gurasoak baino adituagoak dira teknologiaren erabileran, eta horrek

ondorio objektibo bat dauka: gurasoek ez dakite nola kontrolatu seme-alabek teknologiari ematen dioten erabilerara», dio Albert Jove Universitat Oberta de Catalunya-ko (UOC) Informatika, Multimedia eta Telekomunikazio Ikasketetako irakasleak. «Eskola-jazarpeneri, phishing-ari edo iruzurrei buruzko etengabeko albisteek, askotan adingabeen suizidioak areagotzea bezalako ondorio lazgarriekin, gizartea asaldatu besterik ez dute egiten, eta zer egin dezaketen galdetzen diote gurasoek beren buruari», gehitu du.

Bere ustez, ez dago arazo hori konpontzeko formula magikorik edo hartu beharreko neurrien errezeta-liburu miragarrik, baina posible da arriskuak murrizteko jarrerak izatea eta neurriak hartzea. «Neurri teknikoak oso beharrezkoak dira, baina hortik haratago, zentzuzko jokabideak eduki behar dira eta horiek seme-alabei ongi helarazi, edozein gertakariren aurrean babestuta sentitu behar dute», adierazi du Jovek. Gomendio hauek egin ditu:

LEHEN ARAUA: HITZ EGIN

Adingabeak babesteko, interneterako eta sare sozialetarako sarbidea debekatu gabe, adituen lehen aholkua konfiantzazko harremana ezartzea da. «Gurasoek ez dute polizia izan behar ('kolegak' ere ez), aurre egin beharreko erronken aurrean laguntzen dieten pertsonak baizik. Nerabeek ziur jakin behar dute, akatsen bat egiten badute, gurasoekin hitz egin dezaketela eta gurasoek arazoa konpontzen lagunduko dietela», adierazi du Jovek. Kasperskyk egindako "Linean egotea: haurrak eta gurasoak Interneten"

McAfeeren inkestak argi erakusten du etxe askotan gurasoek ez dakitela zer egiten duten beren seme-alabek sareara konektatzen direnean. Dima BERLIN | GETTY

txostenaren arabera, galdetutako gurasoen %75,5ek dio hainbat aldiz hitz egin duela bere seme-alabekin interneteko segurtasunari buruz, baina oraindik ere ehuneko handi batek (%24,5) aitortzen du ez duela inoiz halakorik egin.

PRESTAKUNTZA

Adituek funtsezkotzat jotzen duten beste gomendio bat interneteko segurtasunari buruzko ezagutzak izatea da. «Gurasoak prestatu egin behar dira, seme-alabak non sartzen diren jakin behar dute. Adituak izan ez arren, arriskuak hobeto baloratu ahal izango dituzte», adierazi du UOCeko irakasleak. Oraindik gaintu gabeko ikasgaia da, Lingokidsek egindako ikerketa baten arabera, gurasoen %54k onartzen du teknologia eta segurtasunari buruzko ezezagutza handia duela.

EREDU IZAN

Gurasoak koherenteak izatea eta eredu ematea ere funtsezkoa da Albert Joveren iritziz, argazkiak une oro sareetan igotzen ez ibiltzea edo etxean internetetik deskonektatzen jakitea, adibidez.

BEGIRADA KRITIKOAN HEZTEA

Ikuspegi kritikoa ematea, adingabeei azalduz zerbait interneten argitaratuta egoteak ez duela esan nahi egia denik. Horrek ere nerabeak arrisku potentzialetatik babesten laguntzen du. Horregatik, UOCeko irakasleak adingabeei iturriak kontrastatzen irakastea gomendatzen du, ahal den neurrian. "IKTak eta nerabeen sozializazioan duten eragina" izeneko azterlanaren arabera, 14 eta 16 urte bitarteko pertsonen %22,5ek baino ez du aitortu albiste bat benetako den

ala ez ulertzeko eta detektatzeko prestakuntza jaso duela.

BIZITZA ERREALEKO PREKAUZIOAK

McAfeeren ikerketak azalera-tu zuen haurren %15ek kontu lapurreta saiakeraren bat sufritu izan duela. Egoera hori saihets liteke seme-alabei euren datuak babestearren garrantzia azalduz. «Kalean ezezagunei ez dizkiegu gure datuak ematen, eta ez diegu non bizi garen esaten. Sarean ere ez. Bizitza errealean digitalean ere hartu behar ditugun neurriak hartzen ditugu», gogoratu du Albert Jovek. Gurasoek seme-alabei horrelako adibideak jartzea eta irudikatzea gomendatzen du adituak, ematen duten informazioarekin zuhur jokatzeko.

SEGURTASUNA GAILUETAN

Oinarrizko beste arau bat gailuetan segurtasun-tresnak

Nabigazio-historia garbitu, gurasoak gertu daudenean esploratzailea itxi, txat mezuak eta bideoak ezabatu, izena ezkutatzuz nabigatu... ohiko jokabideak dira nerabeen artean

«Neurri teknikoak oso beharrezkoak dira, baina hortik haratago zentzuzko jokabideak eduki behar dira eta horiek seme-alabei ongi helarazi», dio Albert Jove adituak

erabiltzea da, antibirusetik hazi eta guraso-kontrolerako softwareetara, pasahitzen kudeatzaileak, VPNak... «Antibirusen fabrikatzaile gehienek dagoeneko saltzen dituzte babesteko soluzio integralak», gogorazi du UOCeko irakasleak. Kasperskyren ikerketaren arabera, gehien erabiltzen diren tresnen artean guraso-kontrolerako aplikazioak daude, gurasoen %48k erabiltzen dituztenak.

Gurasoak koherenteak izatea eta eredu ematea ere funtsezkoa da Albert Joveren iritziz. Dima BERLIN | GETTY

INFORMAZIO SENTIKORRA

«Argazki 'ausart' bat inoiz ez dela erabat desagertuko jakin behar dute gurasoek, eta hori nerabeei jakinarazi behar zaie, eduki edo informazio sentikorrrak gaizki erabiltzeak zer ondorio dituen jakin dezaten», ohartarazi du Jovek, eta gaineratu du garrantzitsua dela arreta jartzea adingabeek argitaratzen dutenari, zer kontaktu dituzten eta zer erabiltzaile izen erabiltzen duten jakiteko.

MEHATXUEN OHARTARAZPENA

Azkenik, oso garrantzitsua da nerabeek mehatxuen aurrean nola jokatu behar duten azaltzea. Egoera horietan, irakaslearen gomendioa da mezu mehatxagarriari, jazarleei edo deserosoei ez erantzutea, eta seme-alabei argi uztea egoera horien berri eman behar dietela ahalik eta azkarren, laguntza eman diezaieten.





Ana NOVOA FARIÑAS
Gizarte psikologoa

Hilekoa: biologia eta politikaren artean

6 Oko eta 70eko hamarkadatik aitzin, medikuntza egiaren gordailu bilakatu zen garaian, ustez neutralak eta objektiboak ziren epaien aurrean, feminismoa zalantzan jartzen hasi zen medikuek gorputzak definitu eta artatzeko zuten modua. Izan ere, medikalizazioa, funtsean, kontrol sozialerako mekanismoa da, gaixotasunetatik haratago hedatzen dena eta giza esperientziaren alderdi naturaletan ere eragiten duena.

Dinamika horren adibide garbia hilekoaren zikloaren medikalizazioa da. Prozesu hori emakumeen biologiaren fenomeno intrintsekotzat hartzen denean hasten da; emakume guztien esperientzia unibertsaltzat hautematen denean, alegia. Haatik, hilerokoa gizon ala emakume binomioan kokatzeko aitzakia bezala erabiltzen den arren, ezin da emakume guztien ezaugarri komuntzat hartu. Morfologia zehatz bati erantzuten ez diotenenk, histerektomia dutenenk, transak direnek, oso argal daudenek, menopausiara iritsi direnek... ez dute hilekorik. Azken batean, ezaugarri zehatz batzuk eta bizitzako une jakin batean daudenek soilik bizi dute. Biomedikuntzak, sexu/genero sistema babesteko ahaleginetan, ikuspegi dualista hori defendatu arren, ulertu behar dugu horretatik gaindi bizipen zein identitate andana daudela eta beharrezkoa dela gure ulermenak eta ikuspegiak horien guztien aberastasuna islatzea.

Hala ere, hori ez da medikalizazioak hilekoaren zikloan izan duen eragin bakarra. Prozesu natural bezala ikustetik urrun, diskurtso honetatik arreta medikoa behar duen gertakari bezala identifikatzen da. Are gehiago, askotariko kategoriak sortu dira medikuntza zein psikiatriatik ideia hori berresteko: hilekoaren aurreko nahasmendu disforikoa, hilekoaren aurretiko sindromea... Gainera, aho biko arma gisa erabiltzen dute: batetik, etike-

tatu eta kategorizatu egiten gaituzte; baina, bestetik, ez dute egiazko tratamendurik gaitz gisa sailkatu duten horrentzat. Izan ere, ezin uka daiteke hilekoa duten pertsona askok min latzak izaten dituztela. Afera da honen aurrean eskaintzen diren aukerak, maiz, bereizirik gabeko kontraepizio metodo hormonalak edota ibuprofenoak errezetatzera mugatzen direla.

Azkenekoaren harira, mina da, ezbairik gabe, gure testuinguruan hilekoari lotuta medikalizazio prozesuak izandako eragin nagusienetako bat. Txikitatik erakusten digute mina sentitzen badugu, zerbait gaizki dagoelako dela. Aitzitik, badirudi hilekoaren kasuan ezgaitzen gaituen mina sentitzea normala dela, prozesuaren berezko zati gisa onartzeraino. Kontua da, normala baino, biomedikuntzak normalizatu duen zerbait dela. Gure gorputzeko beste prozesuren batek mina emango baligu (digestioa egiteak, esaterako), segituan larritu eta arrazoiak bilatzen hasiko ginatke. Baina hilekoaren kasuan, aurretik aipatu legez, pairamenak pilulekin ezkutatzea animatzen gaituzte. Jarrera horrek, gainera, erakusten du biomedikuntzak sintomak tratatzeko duen joera: azpian dauden kausetan sakontzeke, arazoaren sustraia-ri heltzen ez dion medikalizazio-zikloa betikotuz.

Premiazkoa da hilekoaren minari buruz ezarritako araudia zalantzan jartzea. Ikuspegi biopsikosozial batetik gaiari heltzea, zikloak hala eskatzen baitu. Minen atzean ezkutatzen diren kausak ulertu eta jorratu behar ditugu. Maiz, pairamen horiek guztiek gure bizitzekin, testuinguruarekin edota ohiturekin harremana izango dute. Edo, hobeto esanda, bizi garen zisheteropatriarkatu kapitalistak izatera behartzen gaituen erritmo frenetikoaren kausengatik izan daitezke. Baina, tristeteki, oraindik lotsatik, ukapenetik eta ezjakintasunetik bizi dugu hilekoa. Baita zapalkuntzatik ere. •



Hilekoaren minari buruzko araudia zalantzan jarri behar da. GETTY



{ koaderno } **Xabier IZAGA**

Ezohiko zurrunbiloen ondoko paisaia ohikoak

Gutxien dutenen eta gehien dutenen arteko aldea handitu egin da. Handitzen jarraitzen du, baina ez du ematen inork handitzen duenik, bera handitzen dela baizik. 2007ko krisiaren ondoren, pandemiaren ondoren, Ukrainako gerra betean, bankuek eta enpresa handiek mozkin ezohikoak dituzte, historikoak, urtean baino urtean historikoagoak. Dagoeneko ohikoak dira etekin ezohikoak.

Elikagaien, lehengaien, arnasa hartzearen prezioek gora egin dute. Erruduna, inflazio malapartatua. Edo prezioak, eurek eragin baitute inflazioa. Haren aurka borrokatzen omen dira gobernuak gogotik.

Gaur egun, azken hamarraldietan irakatsi digutenez, ezin da krisiaz hitz egin, zurrunbiloek baizik. Zurrunbiloak aurreikusi gabeko gertaera ezohikoak dira. Inork ez du horien errurik, are gutxiago merkatuek; izan ere, finantza zurrunbiloek merkatuei egiten diete kalte, horregatik onartu behar dute Estatu laguntza, beren burua erregulatzeko.

Merkatuak hor dauden zerbait dira, basoak bezala, edo dinosauroak bezala, eta nahi ez badugu dinosauroen patua izan dezaten, denon laguntzaren beharra dute. Finantza zurrunbiloen eta holako fenomeno naturalen efektua desagertzen denean, dena bere onera itzultzen da: gehien zeukatenek askoz gehiago daukate eta gutxien zeukatenek askoz gutxiago.

Iragan astean Donibane Lohizuneko hotel batean hilda agertu zen emakumea ere zurrunbilo baten biktima izan zela dirudi. Beharbada ez oso aurreikusi gabea, edo igual urtarrilean eraso bat salatu izana, hiru hilabete geroago Ziburuko hotel bateko leihotik «erri» izana eta Poliziak ustezko erasotzailearen portararen berri izatea ez ziren prebentzio neurriak hartzeko nahikoa elementu.

Edonola ere, ezohiko gertaera izan zen, eta horrela ezohiko gertaerek ohikoak izaten jarraituko dute, Estatu frantseseko feminizidio kasuetako datuek ez baitute besterik iragartzen: hilketen egileen herenak indarkeria-ekintzengatik kondenatuak izan ziren, polizia-aren aurrean egindako salaketan %29 ez zaizkio fiskalari aurkezten eta Justiziari jakinarazitako salaketan %80 ez dira onartzen.

Lasai, baina, kasu honetan badago erruduna, eta atxilo. Orain ez da faltako legeak gogortzeko eskatzen duenik, zigor eredu-garriak ezartzeko, atxilotua gillotinaz hiltzeko, beste emakumerik hil ez dezan. Iragan astean hildakoa, behintzat, ez du hilko.

Atxilo dago ustezko erruduna, eta horrela, beharbada, emakumearen salaketaren eta ondorengo gertae-

Orain ez da faltako legeak gogortzeko eskatzen duenik, zigor eredu-garriak ezartzeko, atxilotua gillotinaz hiltzeko, beste emakumerik hil ez dezan. Iragan astean hildakoa, behintzat, ez du hilko

ren jarraipenaren inguruko zalantzak lausoago agertuko dira, Polizia eta aparatua judiziala oharkabeago. Gainera, hildako emakumearen bizimoduaren eta haren egoeraren inguruko zenbait datu eman dituzte argitara, tartean prostituzioa, drogak, buruko gaitzen bat... Baina ez ustezko bizimodu narras eta benetan latz horrek ez ustezko errudunak ez dituzte errugabetzen koiunturazko eta egiturazko akatsak eta utzikeriak. Ez, ba, emakume horren gaineko datuak pertsona zaurgarri baten deskripzioa dira, eta pertsona zaurgarriek behar dute babes handiena. Edo ez?

Ez naiz fenomenoak konparatzen ari, askotariko zurrunbiloen ondoko paisaia samingarriak baizik. •

MIREIA SERRA ETA SAIOA BALEZTENA «TODAS LAS LACTANCIAS» LIBURUAREN EGILEAK

«Edoskitzeak ikusarazteko premia dago. Denetan azaltzen da sistemaren abandonu sentsazioa»

Nire lehen edoskitzea ez zen nahi nuen bezalakoa izan. Titia ematea desio nuen, baina ez zen posible izan, funtsean sistemaren akonpainamendu faltagatik. Orduan, nirekiko erran nuen: ez da espero nuen bezala izaten ari, baina edoskitzeaz gozatu nahi dut».

Mireia Serra aktibista feministaren testigantza da. «Totes les lactàncies molen» (Ara Llibres, 2023) liburuaren sorrera.

Argazki saio bat egin nahi zuen semearekin, baina gustatzen zitzaizkion argazkilarien lanetan ama zoriontsuak baino ez zituen ikusten bularra ematen. «Haserretu egin nintzen, amatasun ideal horiek ez direlako hala benetan. Ekintza inpulsibo batean, Instagramen partekatu nuen #Toteslaslactànciesmolen etiketa. Eta beren historia konpartitzeko eta entzunak izateko beharra zuten ama pila baten kontakizunak jaso nituen. Ahizpatasun sare bat osatzeko balio izan zuen, edoskitzea dena delakoa izanda ere», kontatu dio GAUR8ri.

Ahotsik ez dutenen bizipenak Motibatu, eta edoskitzen zuten hogeitatu bat ama elkarrizketatu zituen. Cristina Pujol (@banyadorderatlles) argazkilariak argazkiak egin zizkien.

Bigarren semea jaio zenean, material hori guztia kaxoi batean gelditu zen, baina erditze ondo pasatuta, materiala no-

JENDARTEA / Maider IANTZI GOIENETXE

Mireia Serrak (Vic, Katalunia, 1986) landatu zuen liburu honen lehen hazia, idealizatutako amatasunen aitzinean, edoskitze ugariaren kontakizunak bilduz. Edoskitzeen aholkulariak Saioa Baleztena (Bera, 1989) kazetariarekin batera idatzi zuen 'Totes les lactàncies molen' liburua gaztelaniaz plazaratu dute orain, Txalapartarekin.

labait plazaratu behar zuela sentitu zuen. Saioa Baleztenarekin jarri zen orduan harremanetan. Sareetatik soilik eza gutzen bazuen ere, anitz miresten zuen bere kazetari-tza lana. Beratararak ere jarraitzen zuen Vic-ekoa. «Adin ber-

tsuko bi seme ditugu, eta gustatzen zitzaidan berak bere amatasunaren bizipenaz egiten zuen kontakizuna. Identifikatuta sentitzen nintzen», adierazi digu Baleztenak.

Materiala erakutsi zionean, argi ikusi zuen hor liburu bat

Mireia Serra edoskitzeen aholkularia da; Saioa Baleztena feminismo eta amatasunetan espezializatutako kazetaria. Bi ama eta aktibista hauek lau eskutara idatzi dute liburua. Jagoba MANTEROLA / FOKU

zegoela. «Nik kazetaritza ulertzen dut hedabideetan ahotsik ez duten pertsonen bizipenak kontatzeko aukera bezala. Edoskitzea ama guztiei gertatzen zaie, baina ez zegoen orain arte beren bizipenak bilzen zituen libururik».

Hori guztia bideo deiez aipatu zuten, umeak titian zituztela, eta idatzi ere siesta orduan eta arratsez idatzi zuten. «Hori kontatzen dugu beti, ez amagandiko edoskitzea aldarrikatzekeo baizik eta guretzat garrantzitsua izan delako prozesua zaintzea. Hemen badago gai bat ez dena gehiegi



«Honakoak dira 30 kontakizunak lotzen dituzten hariak: akonpainamendu falta, epaituak sentitzea eta osasun mentalean honek denak duen eragina»

«Guraso batzuek kontaktzen dute egun batean ikusi zutela beren burua goizeko lauretan esnea ateratzeko tresnarekin negarrez, ezinean. Nola ailegutzen gara honaino?»

aipatzen, eta da zeinen zaila den ama garenean proiektuak aurrera eramanez ahal izatea».

Baleztenarentzat garrantzitsua da hasieratik garbi gelditzea proiektu honen sortzailea Serra dela. Hori errespetatu nahi izan du prozesu osoan. Bertzalde, liburua ahalik eta baldintzarik onenetan idazteko ahalegina egin dute. «Hagitz kontent nago egin dugun bikotearekin. Ez da erraza liburu bat lau eskutara idaztea, eta gutxitan sentitu dut prozesua merezi duen bezala zaindu ahal izan dudarik».

Mezu hagitz politikak

Katalanez jaio zen proiektua eta hala plazaratu zuten 2023an, baina aurten Txalapaterekin gaztelaniaz argitaratzeko aukera izan dute, eta izugarri kontent daude “Todas las lactancias” izaten ari den harrerarekin.

Aurkezpen piloa egin dute, batez ere Katalunian, eta denetarik mezuak eman dizkie jendeak, hagitz politikak. Osasun arloko profesionalak ere etorri zaizkie. Emagin batek kontatu zien lankide eta ami gomendatzen ari zela liburua. Eta bertze batek, erditu eta edoskitze zaila izan zuenak, eskerrak eman zizkien primeran etorri zitzaizkion.

Amei entzunda, baietsi dute edoskitzeak ikusarazteko pre-

Katalanezko liburuaren ondotik, gaztelaniazko edizioa aurkeztu dute, Txalapaterekin, argazki erakusketa batekin batera. Liburuan agertzen diren irudiak dira, Cristina Pujol argazkilaria eginak. Jagoba MANTEROLA / FOKU



mia zegoela. Testigantza denetan azaltzen da sistemaren abandonu sentsazioa.

Ahizpatasunezkoa

«Liburua bakarrik ez gaudela dioen oihu bat da. Emakume batek identifikatuta sentitzen pasarteak azpimarratu zituen, eta kapitulu guztiak markatu zituen ia. Azken batean, edoskitze bera egin ez arren, kontakizun, hitz eta emozioetan islatuta ikus dezakezu zure burua. Patriarkatuak elkarren aurka nahi gaitu, amak kritikatu eta epaitzen; bada, liburua justu kontrakoa da, ahizpatasunezkoa», deskribatu du Vic-eko aktibistak.

Errealitate gehiago txertatu dituzte: pertsona trans baten edoskitzea, dolua bizi duen guraso batena edota induzitua. Eta, 30 gurasoren testigantzez gain, adituen azalpenak ere jaso dituzte. Hamar ataletan antolatuz, irakurketa arina izatea lortu dute.

Amagandiko edoskitzea

Amagandiko edoskitzeari eskaini diote lehen atala. Ez da

praktikarik zabalduena. «Badakigu Osasunaren Mundu Erakundeak gutxienez sei hilabeteko edoskitzea gomendatzen duela, eta gero, elikadura osagarria sartuta, amak eta umeak nahi duten arte. Badakigu zenbat onura dituen. Baina batzuetan badaude hainbat arrazoi emakumeak amagandiko edoskitzea ezin egitera eramaten dituztenak. Adibidez, umeak lau hilabete dituenean enplegura itzuli behar izatea», erran du Baleztenak.

Aldarrikatu duenez, politika publikoak falta dira. Ez badago babesik, profesionalak ez badaude eguneratuta, amagandiko edoskitze anitz bidean galduko dira.

Liburu osoan agertzen da akonpainamenduaren garrantzia. «Hainbat emakumek azpimarratzen dute momenturik garrantzitsuenan, umea sortu eta segituan, profesionalak agindu desberdinak ematen dizkietela. Ezjakintasun ikaragarria dago, eta horrek dakar eskubideak ez bermatu ahal izatea. Amagandiko edoskitzea behar bezala bizitzeak

eskubide bat izan beharko luke, baina pribilegio bat da, anitzetan pribatura joan behar izaten dugulako».

Biberoia

Edoskitzeen laguntzailea da Mireia Serra. Amagandiko edoskitzeen kontsulta ugari ditu, baina gehienak biberoi bidezko edoskitzeenak dira, hutsunea baitago hor. Zein biberoi erabiliko dut? Nola emanen diot umeari? Zer esne erabiliko dut? Badirudi biberoiarekin dena eginga dagoela, baina ez da hala. Guraso hauek ere zalantza eta beldurrak dituzte, akonpainatu behar direnak.

Testigantza guztiak batzen dituen bertze hari bat norbere gorputzarekiko konfiantza falta da. Aurkezpen batera etorri zen ama batek hala erran zien: «Oxala nire inguru hurbilak liburu hau irakurri izan balu, ez nuen nire edoskitzeari buruzko komentario pila bat entzun beharrik izanen».

Konfiantza funtsezkoa da edoskitzea plazerez bizitzeko. «Beti animatzen ditut haurdu-



nak, sabela behatzeaz gain, titiak nola prestatzen ari diren erreparatzera. Iraganera bidaiatzera ere gonbidatzen ditut, gorputzarekin zein harreman izan duten ikusteko, bereziki titiekin».

Buru osasuneko auzi bat

Tamalez, ama anitz autoestimua baxuarekin iristen dira erditzera eta edoskitzera, traumekin eta gorputzarekiko harreman mingarriekin ere bai. Edoskitzeak hori dena mugitzen du. Hortaz, liburuaren xede bat da edoskitzea buru osasunaren auzi bat dela ikusaraztea. Zaindu eta erdigunean jarri behar dena.

Ohikoa izaten da, ama berrien kasuan, «bularra emanen dut, ahal badut» erratea. «Ahal badut» baino, «nahi badut» izan beharko litzateke, ordea. «Emakumeen %99 prest gaude bularra eman ahal izateko. Gaitasuna kentzen digun bakarria ingurua da, akon-

painamendu falta. Horrek ekartzen du edoskitze bat libreki eta plazerez ez bizitzea».

Egiten dutena egiten dutela, gaizki dago gizartearen begiradapean. «Hori da liburuaren muina. Niri pena ikaragarria ematen dit honek, eta uste dut feminismoak baduela erronka. Anitzetan gu garelako gure artean epaitzen aritzen garenak. Liburuarekin ikusi dugu hainbat profesionalak ez diotela babesik eman, aniztasuna aldarrikatzen dugulako», azpimarratu du Saioa Baleztenak.

«Bularra emanda, baliteke fusio hori bizitzea, eta baliteke ez bizitzea ere. Lotura ez da biberioia ematea ere. Elikadurak ez du lotura markatzen, presentziak baizik»

«Molestatu egiten du emakumeok gure gorputzarekin aske izateak. Txikitatik sexualizatu dizkigute bularrak. Ulertzen da titiek funtzio bakarria dutela: gizonen plazera»

Liburua plazaratzearekin batera, argazki erakusketa bat zabaldu zuten Iruñeko Txalapartan, askotariko edoskitzeak islatzen dituena.

Jagoba MANTEROLA / FOKU

Epai hauek eta amatasun eredu bakarra, edo muturrean dauden bi, bultzatzeak osasun mentala kaltetzen dute. Horiek dira kontakizunak lotzen dituzten hariak: akonpainamendu falta, epaituak sentitzea eta osasun mentalean honenak denak duen eragina.

Erabaki eta errespetatu

Amatasun eta feminismoetan espezializatutako kazetari eta aktibistaren ustez, gakoa da amek zer nahi duten aditzea eta beraiek beren buruari ere zer behar duten galdetzea. Horren arabera erabaki eta inguruak errespetatzea.

«Sarri ez dugu ariketa hau egiten, eta joerak jarraitzen ditugu. Inguruak ere ez gaitu errespetatzen, eta epaiketa bikoitza izaten da batzuetan. Ama batzuek eta Pol aita transak ere kontaktzen dute egun batean ikusi zutela beren burua goizeko lauretan esnea ateratzeko tresnarekin nega-

rez, ezinean. Nola ailegatzten gara horraino? Bel Polen bikoiteak ere kontaktzen du, bi ume zaharrago ditu, berak erditu zituen, titia eman zien eta hagitx esperientzia praktikoa izan zen. Pol haurdun gelditzean, berak ere edoskitzea induzitu eta ematea erabaki zuen. Aukera hori egin zuen, pentsatuz familia bezala praktikoa izaten ahal zela haur bakarrak lau titi izatea elikatzeke, baina konturatu zen ez zela berak nahi zuena betetzen ari, justu kontrakoa. Orduan, 'horraino' erran zuen».

«Espektatibak eduki behar ditugu. Ona da, baina hori bezain ona da betetzen ez badira ahalik eta hobekien kudeatzeke prestatzea».

Adibidez, bai Annak eta baita Nuriak ere bolada batez aurrez ateratako esnea eman zioten umeari, gero mistoa egin zuten, eta haurrak urtea betetzean, behi esnea eman zioten. «Gakoa da kasu guztietan gure buruarekin solastatu, bakeak egin eta gehiago aditzea gure burua; eta gutxiago kanpotik heldu zaigun guztia».

Edoskitze mistoaren eta biberioaren atalean, esne artifizialaren negozioa seinalatzen da, azalduz hiru esne mota daudela eta hirugarrena marketin hutza dela. Horrez gain, aldarrikatzen dute guraso eta umearen arteko lotura ez dela bakarrik titiaren bidez lortzen, bularraren harreman hori idealizatua baitago. «Bularra emanda, baliteke fusio hori bizitzea, eta baliteke ez bizitzea ere. Lotura ez da biberioia ematea ere. Elikadurak ez du lotura markatzen, presentziak baizik».

Mitoak puskatzen dituzte

Haurdunaldiko edoskitzea estigmatizazioa jositako dago. Erraten da abortatzeko arriskua dagoela,

baina jakina da edoskitzeak eragindako kontrakzioak ez direla horretarako bezain handiak. Bi haurri batera titia ematean erraten da batak bertzeari elikagaia kentzen diola, eta hori ere gezurra da.

Etenik gabeko edoskitzean, ume koskor bat ikustea titian, deserosoa da zenbaitentzat. «Nik uste dut molestatu egiten duela emakumeok gure gorputzarekin aske izateak. Txikitatik sexualizatu dizkigute bularrak. Ulertzen da titiek funtzio bakarra dutela: gizonei plazera ematea».

Baleztenaren ustez, amatasunen bizipenen inguruan erreferentziak falta dira, begirada zabaltzeko. Bi eredu ikusten badituzu bakarrik, ematen du tartean ez dagoela bertze deus; aldiz, ahotsa ematen badiezu, identifikatuta sentitzen ahal zara.

Bular bakarrarekin edoskitzen duenak kanon estetikoaren presioa sentitzen ahal du. Beratarak berak bizi izan duen errealitatea da. «Bi semeek titi bat ukatu dute eta frustrazioa sentitu dut ez nuelako ulertzen zer gertatzen zen nire gorputzarekin. Hor ere badago dolu bat eta haserretzen ninduen dolu horren jatorria kanon estetikoaren pisua zela onartzeak. Gero, ohartzen zara hagitz ohikoa dela».

Minbizia pasatu dutenen kasuan, Claudiak, adibidez, arazoa izan zuen, ez edoskitzeko, baizik eta haurdun gelditzeko. «Hemen azaleratzen da osasun sistemako profesionalen ezjakintasuna. Joera hala erratea da: 'ez konplikatuz, eman formula'. Baina titia ematen ahal dute. Claudiak horrela elikatu zituen bi haurrak».

Transei dagokienez, Baleztena gehien inpaktatu zuena izan zen Pol eta Nel nola ezkatzen

ziren titia emateko, ez zirelako eroso sentitzen. «Borroka dezagun hori aldatzeko eta pentsatu zer egiten ahal dugun gizarte bezala esperientzia hori ongi bizitzeko», egin du dei. Nelek gogoeta interesgarria zabaltzen du: gizarteak haurraren ama bezala ikusten zuen, bera gizona izanik, eta zenbateraino aukeratu zuen formula patroio horretatik urruntzeko.

Dolua pila bat agertzen da. Familiak aurkezterakoan, ume guztien izenak agertzen dira, bizi direnak eta hil zirenak. Irakurlea familia bakoitzarengana hurbiltzen laguntzeaz gain, dolu perinatala zeinen ohikoa den ere erakusten du.

«Gakoa da, batetik, gizarteak espazioa ematea dolu sufritzen duten familiei: haur horiek existitu dira, izen bat dute, jaiotza eta heriotza data bat, eta garrantzitsua da hori kontatzea eta gizarte bezala ohitzea min horri espazioa egiten.

Bertzetik, jakin behar da, edoskitzeari dagokionez bereziki, aukera desberdinak daudela eta bakoitzak erabaki beharko lukeela beretzat zer den hobereña eta inguruak eta sistemak erabaki hori babestu behar lukeela, horrek bizipena erabat alda dezakeelako».

Umea hil eta gero, esnea igotzen zaio amari, eta esne hori bertze ama eta ume batzuei ematea terapeutikoa izan daiteke. Edo bitxi bat egitea.

Kontatu zure edoskitzea

Edoskitzeen amaierari eskaintzen diote kapitulu bat, eta azken atalean beren edoskitzeak kontatzera animatzen dituzte gurasoak. «Liburua hortik jaiotzen, nire edoskitzea osatzen hasi nintzen idatzen hasi nintzenean. Puntu terapeutiko hori du. Idatzi zure edoskitzea, eta batu emakume hauengana, ez gaude bakarrik», adierazi du Mireia Serrak.


«Amatasunen bizipenen inguruan erreferentziak falta dira, begirada zabaltzeko. Bi eredu ikusten badituzu bakarrik, ematen du tartean ez dagoela bertze deus»

«Hau ez da amentzako liburu bat, edoskitzearen erantzukizuna gizarte osoarena da. Errespetuz bizitzeko ezinbestekoa da inguruak ahalik eta informazio gehien izatea»

Alba Padrok idatzi du hitzaurre berezia, eguneroko bat bezala. «Orain osasun langilea da, baina bertze amei lagundu nahi dien ama baten ezinegoretik sortu zen bere ekarpena». Bi egileei garrantzitsua iruditzen zaie azpimarratzea hau ez dela amentzako liburu bat, edoskitzearen erantzukizuna gizarte osoarena baita. Errespetuz bizitzeko ezinbesteko ikusten dute inguruak ahalik eta informazio gehien izatea haurren bizitzako lehen fase inportante honen inguruan.



Mireia Serra eta Saioa Baleztena, berriki Iruñeko Txalapartan egindako solasaldian.
Jagoba MANTEROLA / FOKU



GAUR8 *ireki gure leihoa*



Miren Larrarte, Bidaniako «Ernio» pilotalekuan, One Wall izeneko jokamoldean erabiltzen dituen eskularru eta pilota erakusten. Irriigo URIZ | FOKU

*in*fraganti **MIREN LARRARTE**

CIJB erakundeak antolatzen duen Europako Txapelketan pilotari onenaren saria jaso du Miren Larrarte gipuzkoarrak (Bidania, 2002). Euskal Selektzioarekin esperientzia bikaina izan zuen Portugalen, eta orain ezker horman zentratuko da. Urte zail batzuk igaro ditu, motibazioa apur bat galduta, baina baikor begiratzen dio etorkizunari.

Euskal Pilota Selektzioak CIJB erakundeak antolatzen duen Europako Txapelketan hartu zuen parte apiril hasieran, Portugalgo Freixo de Espada a Cinta herrian. Euskaldunek emaitza bikainak lortu zituzten –emakumezkoek urrezko

hiru domina eta gizonezkoetan urrezko bat eta brontzeko hiru–, eta Miren Larrarte bidaniarrak txapelketako pilotari onenaren saria jaso zuen.

«Horrelako sari batek sekulako ilusioa egiten du. Herrialde desberdinetako jokalariko geunden, eta sari hori zuri emateak ilusio berezia egiten du», onartu digu Larrartek Bi-

daniako pilotalekuan egin dion elkarriketan. «Jarraitzeko motibazio puntu bat ere eman zidan», gaineratu du, normalean jokatzen ohituta ez dauden jokamoldeak izanik.

CIJB erakundeak antolatuta azken txapelketa horretan, esaterako, Llargues-a, Joko Internazionala, One Wall-a eta Pilota Portugaldarra izan ziren

jokatutako modalitateak. Euskal Herrian tradizioz ez duten jokamoldeak dira, baina azken urteotan, Euskadiko Federaziotik egindako lanari esker, euskal pilotariak modalitate horiei neurria hartzen joan dira. Horietako batzuk, gainera, gure betiko jokoekin harreman zuzena dute, bote-luzearekin, esaterako.

«Pilotak oso desberdinak izateaz aparte, gu ohituta gauden kantxa handi batean eta ezkerrean pareta daukagula jokatzen. Eta sartzen zarenean kantxa txiki batean, txaparrik gabe eta pilota bizi horrekin, ba hasieran gure lehen entrenamenduak kaos bat ziren. Denbora gehiago pasatzen genuen pilotak biltzen entrentzen baino», dio Larrartek, One Wall modalitatean egindako lehen saioei buruz.

«Jotzeko modua ere aldatzen da. Guk normalean behatzekin edo hatz koskorren barruko aldearekin jotzen dugu pilota, baina jokamolde hauek guk urdaiazpikoa esaten diogun ahurraren behealdearekin edo eskua itxita ukabilaren barnealdearekin jotzen diogu», gaineratu du.

Emaitzak ikusita, ordea, argi dago denborarekin ederki moldatu direla molde berri-tara: «Euskal selektzioarekin abendu amaieran hasi ginen entrentzen, txapelketa bat gerturatzen denean euskal selektzioarekin ia igandero egiten ditugu entrenamenduak, bai One Wall-ean eta bai Joko Internazionalan. Dezentente entrentatu dugu, eta, gainera, urteen poderioz ikasten joaten zara eta ez zaizu ahazten».

Portugalgo txapelketari dagokionez, lehen urrezko domina Joko Internazionalan irabazi zuten, finalean Herbehereak menderatuz. «Joko



Larrarte, 2019an Emakume Master Cup lehiaketan jokatutako partida batean. | Jon HERNÁEZ | FOKU

Internazionala CJIB-k sortutako jokamolde bat da, ahalik eta nazioartekoena izateko sortutakoa. Ahal den sinpleena, era berean. Horretarako sortu zen. Valentziako neskek, adibidez, Raspall izeneko jokamoldean jokatzen dute asko. Ez da berdina, baina antzekotasunak ditu. Aurrez aurreko beste joko bat da, boteluzearen tankerakoa. Herbehereetan ere badute oso antzeko bat, Italian ere bai...», azaldu digu Mirenek.

Bigarren domina One Wall-ean iritsi zen, finalean berriz ere Herbehereetako selekzioari gailenduz: «Niri pertsonalki kezka gehien sortzen zidan jokamoldea horixe zen, aurreko urtean hirugarren amaitu genuelako. Bai herbeheretarrak eta bai valentziarrak One Wall-ean oso ongi moldatzen dira, eta dauzkaten posturak joko horretarako oso egokiak dira».

Hala ere, «ezustekoa» hartuta, «uste baino errazago irabazi genuen», onartu du.

Hirugarren eta azken domina Pilota Portugaldarrean irabazi zuten euskaldunek. Txapelketa antolatzen duen herrialdeak bere jokamolde bat sartu ohi du, ezagutzera emateko: «Elizako horman jokatzen. Dena ona zen, txapa bazegoen, eta helburua frontoiko berdina zen, pilotari bi bote eginaraztea aurkariak jo aurretik. Behin elizako teilatura ere joan zen pilota».

«Nik ez nuen jokatzen hori, beste bietan aritu behar nuelako, baina jokatzen oso ongi moldatu ziren. Azkenean, hemen pilota goxoarekin jokatzea bezala da. Ingalaterran, antza denez, antzeko jokoren bat ba omen dute, eta egia da uste baino gerra gehixeago eman zigutela, baina euskal selekzioako neskek apur bat la-

saitu zirenean, arazorik gabe nagusitu ziren», azaldu du.

ESKUETAKO ARAZOAK

Hala ere, Miren Larrarte ezkerhormen aritutakoa da txiki-txikitatik, eta aurrera begira ere hortxe ditu jarriak bere erronka nagusiak, nahiz eta denboraldi batez motibazioa apur bat galduta ere ibili den.

«Azkeneko urteak ez dira oso aberatsak izan frontoian, pilota mistoarekin batez ere. Ez da aitzakia, baina eskuek ez didate asko lagundu eta motibazio aldetik ez naiz nire %100ean ibili. Orain askoz gusturago nabil entrenatzen eta eskuek oraingoz errespetatzen naute», onartu digu.

Fisioterapia ikasketak egiten ari da bidaniarra, eta horrek urte batzuk Bilbon bizitzera eramanez du, nahiz eta jada etxera itzulita dagoen. «Bilbon bizi nintzen, eta han entrena-

«Kantxa txiki batean, txaparik gabe eta pilota bizi horrekin, gure lehen entrenamenduak kaos bat ziren», dio Larratek One Wall-ean emandako lehen urratsei buruz

«Niri 19 urterekin gertatu zitzaidan: partida asko hitzemanda, eskuko minez ia beti... Horrek emozionalki faktura handia pasatzen dizu», gogoratu ditu igarotako une txarrak

tzeko nahiko urrutira joan beharra neukan. Astean behin soilik, gainera. Besteetan, bakarrik jardun behar. Zaila egin zitzaidan hori eramatea, baina esandakoa, batez ere motibazio aldetik. Eta emaitzetan ere nabaritu zen. Baina orain badirudi pixkanaka hobeto goazela, eta ea emaitzetan nabaritzen den», gehitu du.

Esan bezala, eskuko minarekin dezente sufritu izan du Larrartek. Pilota mistoarekin jokatzen emandako jauzia eta emakumezkoen egutegia asko zabaldu izana pozteko albisteak dira, baina pilotariengan lehen ohikoak ez ziren arazo horiek ere ekarri ditu.

«Hasieran poztekoa zen: partida asko, herrietatik dei asko, denek nesken txapelketa nahi zuten... Baina noski, herri guztietan mailarik onena nahi dute. Kontuan hartu behar duguna nesken esku pilota gaur egungo jokatzen moduarekin orain dela gutxi hasi zela, eta, beraz, elite mailako neska pilotari gutxi gaudela. Ezetz esateak ere apurua ematen dizu. Eta egutegia ongi planifikatuta ere, gero agian eskuek ez dizute erantzuten. Niri, adibidez, 19 urterekin gertatu zitzaidan: partida asko hitzemanda, eskuko minez ia beti... eta horrek emozionalki faktura handia pasatzen dizu. Horren ostean pilota denbora batez

utzi egin behar izan nuen, niretzako denbora hartzeko, errekuaratzeko, eta motibazio hori ere berreskuratzen saiatzeko».

Izan ere, emakumezkoen esku pilotari dagokionez, hutsune handiena hortxe ikusten du Larrartek, gaztetxo eta hasiberriek pilota mistoarekin jokatuz urrats bat gora egin nahi dutenean, ia aukera bakarra goi-mailako pilotariekin lehiatzea bilakatzen dela.

«Oraindik neska gutxi gaudete eta jauzi handia dago pilota goxoarekin jokatzenetik pilota mistoarekin jokatzerara. Batez ere maila aldetik. Mistoarekin jokatzen hasi nahi duenak jada gorengo mailan gabiltzanon aurka jokatzen hasi beharra dauka, trantsizio zaila izan daiteke. Baina pixkanaka ari da eboluzionatzen eta bide bat badago hor», azaldu digu.

Alde positibotik begiratuta, urte askoan emakumeek pilotari jokatzeke aukera bakarra palaz jokatzea zen garaia atzean geratzen ari da. Larrartek gogoratzen du bera ere «inertziak» hasi zela une batean eskua utzi eta palaz jokatzen. «Gaur egun nesken esku pilota askoz ikusgarriagoa da. Ikusi egiten da. Horregatik, badaude neskak txikitatik eskuz hasi eta eskuz jarraitzen dutenak. Eta hori jokatzeke moduan asko nabaritzen da, zeren palara pasatzen zarenean posturak asko aldatzen dira».

Eta atzetik datozenak ikusita, mezu baikor batekin amaitu du Larrartek. «Orain pilotari hasiberrien talde txiki batzuk sortzen ari dira, beraz, non ibili eta non entrenatu badago». Bidaniako pilotalekuan entrenatzen utzi ditugun gaztetxoak dira horren testigu.

Asier Aiestaran

ROWK, Euskal Herriko lehen One Wall kluba sortu dute Diman

Miren Larrartek jarri gaitu pistaren gainean: bereziki One Wall jokamoldera zuzenduta dagoen Euskal Herriko lehen kluba sortu dute Diman. Eta guk hariari tira egitea erabaki dugu, proiektua hobeto ezagutzeko. ROWK du izena (Rebotean One Wall Kluba) eta Lur Ziarrusta da bultzatzaile nagusietako bat.

«Txapelketaren bat daukagunean entrenamendu batzuk egiten ditugu selekzio modura, baina behin txapelketa hori igarota, beste lehiaketa bat iritsi arte hemen ez dago ezer, ez dugu jokatzen. Ni hasi nintzenean, 2017 aldera, gustatu egin zitzaidan. Eta inguruko beste pilotariren bat ere beti egon izan da jokatzeke prest: Egoitz Amantegi abadiñarra, Ekhi nire anaia, azken urteetan Mikel Beldarrain... Nik nahi nuena zen urtean zehar lehiatzen jarraitzea. Mikel Beldarrainekin hitz egin nuen eta pentsatu genuen urte bat hartu eta txapelketa desberdinetan lehiatzerara joatea. Europan zehar Tour bat egiten da eta hilabetean behin leku desberdin batean txapelketa bat jokatzen da. Ordura arte gu hilabeteak egoten ginen jokatu gabe eta aurkariak egunero jokatzen zuten, eta hori joko mailan asko nabaritzen da. Eta emaitzetan segituan nabaritu zen jarraitutasun batekin entrenatzen hasi ginenean. Hurrengo erronka zen modalitatea Euskal Herrira ekartzea eta bertan noizean behin txapelketaren bat egitea. Entrenamenduak ere apur bat zabaltzea. Eta helburu horrekin sortu genuen kluba. Oso txikia da oraingoz, baina Euskal Herrian besterik ez dagoenez, honekin goaz aurrera», azaldu digu Ziarrustak.

Berez, Europako zirkuituan parte hartzeko ez omen dago klub bateko kide izan beharrik, baina bidea errazteko sortu omen zuten ROWK.



ROWK

«Europako Tourreko txapelketetan parte hartzea nominala da. Edozeinek eman dezake izena bere kabuz. Baina hemen klub moduan egituratzen bagara eta entrenamendu batzuk egiten baditugu, errazagoa da jendea guregana hurbiltzea eta txapelketa horietara joateko animatzea. Gu, adibidez, ia denetara joaten gara, eta gurekin joateko animatzen ditugu besteak ere. Hurbil tokatu izan denean, Valentzian adibidez, etorri izan da jendea gurekin».

Entzun izan dugu One Wall-a dela seguru asko mundu mailan jokalaria gehien dituen pilota jokamoldea. Lur Ziarrustak dioenez, izan liteke, baina zaila da baieztatzea, AEBetan kaleko kirola delako, zenbatzen oso zaila. «Kirol hau Irlandan eta Ameriketara jokatzen da gehien. Irlandan squash pista moduko batean jokatzen zen, baina Amerikara heldu zenean, kaleko kirol bilakatu zen. Noski, kaleko kirol batentzat lau horma azpiegitura handiegia da. Zer egin zuten? Horma baten kontra jokatu. Gehien jokatzen den lekua New York da. Hirian 2.000 kantxa baino

gehiago daude. Parke guztietan daude saskibaloia kantxak eta horma bat edo bi One Wallean jokatzeke. Ezinezkoa da guztira zenbat jokalaria dauden zenbatzea. Auzo bakoitzean pila bat daude, eta maila desberdinekoak. Batetik, top mailakoak daude, gaur egun munduko jokalaria onenak han daudelako, 10-15 izan litezke. Baina gero maila apalagoko beste pila bat daude, hala ere guretzat aurkari oso gogorrak direnak».

Norbaiti One Wall-a hobeto ezagutzeko interesa piztu badiogu, gaur Ogeta pilotalekura hurbildu daiteke, II. Impact Pro txapelketa jokatuko delako bertan. Euskal Herriko pilotariak Europako pilotari onentsuenekin –onenak nesketan, bigarren maila batekoak mutiletan– lehiatuko dira, bertako pilotariei maila oneko aurkariak lehiatzeko aukera bikaina eskainiz. «Lehiaketari maila emateko eta bertakoentzat ere kanpokoen aurka jokatzea erakargarria izaten delako. Eta guretzat ere, antolatzaile moduan, Dimatik Gasteizko Ogetara igarotzea bada jauzi bat».



Maite ORONOZ

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHUua

Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria detektatzen, adimen artifiziala baliatuz

Emakumeen eta nesken aurkako indarkeriak arrastoa uzten du biolentzia hori jasaten duten emakumeen osasunean, eta jatorrizkoa duten herrialdearen osasun-sistemak eta emakumearen egoerak ahalbidetzen badu, baita haien osasun-txostenetan ere.

Emakumeen kontrako indarkeria gizarte-arazo bat da, epe luzerako ondorioak dituena osasunean, gizartean eta ekonomian. Hainbat ikerketen arabera, 3 emakumetatik lek bitzan zehar biolentzia mota hau jasango du. Hainbat dira indarkeria honen motak: etxe barruan bikotearen biolentzia eta abusua, sexu-indarkeria eta emakume-trafikoa, hilketak ohorearen izenean, ezkontza behartuak... Oso maiz isilduak, gordeak eta, horrexegatik, hain zuzen ere, detektatzeko zailak.

Indarkeria mota hauek guztiek emakumeen eta nesken osasunean eragina dute, fisikoan eta mentalean, eta, gaur egun osasun-egoerak osasun-txostenetan deskribatzen direnez, aukera berriak sortzen dira hauek, ahal dela ahalik eta azkarren, detektatzeko. Hizkuntzaren prozesamenduaren bitartez, hau da, adimen artifiziala baliatuz, osasun-txosten elektronikoak automatikoki analizatzen dira emakumeen eta nesken kontrako indarkeria-zantzuen bila.

Adimen artifiziala hainbat modutan erabili izan da arlo honetan. Ikerketa-lan batean, hizkuntzaren prozesamendua (HP) eta sare neuronalak erabili ziren idatzizko baliabideak (laguntza psikologikorako web-orriak, larrialdi-lerroak...) automatikoki analizatuz, emakumeen kontrako indarkeria psikologikoa sailkatzeko (arriku baxua, xantaia emozionala, jeloskortasuna-justifikazioa, irainumiliazioa, mehatxua-posesibotasuna). Beste lan batean, osasun-txosten elektronikoetan hizkuntzaren prozesamendua eta aurretiaz entrenatutako hizkuntza-ereduak erabili ziren sailkatzaile bitarrak sortzeko, zeintzuk pazientearen egoera (egilea, lekukoa eta/edo biktima) eta biolentzia mota (etxekoa, fisikoa eta/edo

sexuala) sailkatzen zituzten aldagai sozio-demografikoak eta klinikoak erabiliz. Ohikoak dira osasun-txostenetan diagnostikoak kodetzeko erabiltzen diren Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapeneko (GNS) kodeak baliatzen dituzten ikerketa-lanak, kode anitzek bikotearen aldetik jasaten den indarkeriarekin lotura zuzena baitute (helduen sexu-abusua, helduen abusu emozionala, helduen sexu-esplotazioa, itotzea... kodetzen dira, beste batzuen artean). Kodeak erabili izan dira i) indarkeria identifikatzeko, ii) indarkeria adina, arraza eta egoera ekonomikoa bezalako aldagaiekin erlazionatzeko, iii) uneren batean etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeek ondorengo urteetan bestelako emakumeek baino osasun-arazo gehiago izan dituzten aztertze edo iv) erresilientziak indarkeriaren eta trauma osteko estresaren artean duen papera aztertze.

Anitzak dira adimen artifizialak emakumeen eta nesken kontrako indarkeria detektatzeko eta analizatzeko ematen dituen aukerak, eta hauek baliatu ahaliko genituzke, kasu hauek ahalik eta azkarren detektatu eta neurriak hartzeko. •



Adimen artifizialak emakumeen aurkako indarkeria kasuak detektatzen lagundu dezake. GETTY

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



HONDALAN KULTUR ELKARTEA. MENDIGORRIA.

EMAKUMEAK DANTZAN, MENDIGORRIAN

Hondalan Kultur Elkartea 2018an sortu zen, Mendigorriako (Nafarroa) memoria grafikoa eta dokumentala gordetzeko helburuarekin. Denbora gutxian, hainbat argazki erakusketa antolatu dituzte, herriko biztanleek utzitako irudiekin. Aurten, argazki horiek bilduko dituen liburu bat argitaratzen ari dira, gehienak joan den mendeko 50eko hamarkadaren amaieratik 70eko hamarkadara Juan Casteleiro Osesez ateratakoak, Foto Juanito izenez ezagunagoa. Argazkilari ibiltari hau, jatorriz irundarra eta Iruñean bizi zena bere kaleko argazkiak egiteko, Takonera basotxoaren ondoan zegoen. Gustu bikainekoa, bere irudietan ikusten den bezala, erreportaje sozialak, ezkontzak, ospakizunak eta bilerak landu zituen, besteak beste. Juan Casteleirok Mendigorriara egiten zituen bisitak beti bat zetozen jai garaiekin, hala nola otsaileko jai txikiekin, maiatzeko Andiongo erromeriarekin eta abuztuko jaiekin. Bere etorrera gertakari bat zen, Genara Iparragirre emaztearekin Iruñetik motorrean bidaiatuz eta Sebastian eta Gregoriaren etxean ostatu hartuz. Bertan muntatzen zuen laborategia bere argazkietan lan egiteko. Artikulu hau ilustratzen duen irudia, Mendigorriako patio batean egina, Hondalan Kultur Elkartearen argazki bildumaren parte da, nahiz eta egiletzari buruz zalantzak egon.



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

irratia.naiz.eus

